



## Integrazioaren alde

Tasubinsak Lakuntzan 30 urte egin ditu, argazkiko bederatzikoteak bezala / 2-3



**Sakanako medikuek lanez gainezka daudela salatu dute, haiek ordezkatzeko medikurik ez dagoelako** / 5

**Euskara praktikatzeko zortzi Mintzakide talde sortu dira dagoeneko Sakanan** / 11

**Lizarragak energiaren kudeaketa jasangarriari buruzko jardunaldia hartuko du asteazkenean** / 9

**Sakana Lanbide Heziketa institutuaren ikasketa-zerbitzu programa saritua** / 9

**Mustu eta 40 urtera Gonzalez Aziluren "Arrano Beltza" Altsasun zuzenean emanen dute** / 21

**Sakanako Herri Lasterketak eta errefuxiatuen aldeko martxak Uhartan utzi zutena** / 12-13

**Haize Berriak bandak, bakarlariez lagunduta, Oskar Mussoren obra bat mustuko du** / 20



**Iker Uribek eta Joana Zigandak "Ni neu Galtzeta" album ilustratua argitaratu berri dute** / 23

# Integrazioaren alde, 30 urteko bidea Sakanan

Lakuntzako Tasubinsako lantokiak 30 urte bete ditu ezgaitu intelektualak gizartean eta lan munduan integratzen laguntzen. Sakanako zein Nafarroako enpresen lanak azpikontratatu jarraitzen dute. Dena den, 30 urte hauetan egoera asko aldatu da.

## İnaki Berastegi LAKUNTZA

“Tasubinsa nire etxea da”. Lakuntzako lantokian aritzen diren Tasubinsa eurentzat zer den adierazteko egin duten mural batean agertzen den esaldietako bat da. Lan egiteko leku bat baino gehiago baita bertan aritzen direnentzat: babestuta sentitzen diren eremua da, euren arazoendako konponbideak ematen dizkiete eta integratzen laguntzen dituzte. “Tasubinsa bitartekari bat da. Gizartean eta lan munduan integratzea, beste edozein bezala bizitzea eta errealizatuak sentitzea laguntzen duen bitarteko bat gara. Hori da Tasubinsa niretako”, nabarmendu du Peio Razkin Lakuntzako Tasubinsa lantokiko arduradunak.

Nafarroako Gobernuak eta Anfas elkarteak 1987an sinatutako akordio batean ostenan sortu zen Tasubinsa. Hala ere, aipatzekoa da, Lakuntzako lantokiak -900 metro koadroko lantegia- ordura arte martxan zegoen Altsasuko hezkuntza bereziko gela ordezkatu zuela 1987an: 1985era arte Lakuntzako Lanbide eskola izan zen eraikinean kokatu zuten gaur egungo lantokia. Irañeta, Uhartea Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Lizarraga, Una-



Tasubinsako langileak lantokian. İNÁKI BERASTEGI

nu eta Dorraoko udal eta kontzejuna da eraikina, eta mugagabeko alokairuan dauka Tasubinsak.

Nafarroa osoan 14 lantoki ditu Tasubinsak; Arazurin, Beriainen, Burlatan, Elizondon, Sanduzelain, Noainen, Orkoienean, San Adrianen, Zangotzan, Orkoienean, Tafallan, Tuteran, Villatuertan eta Lakuntzan. 1.400 pertsona baino gehiagori lana eta okupazioa eskaintzen zaie, eta horietatik 1.200ek mota bateko edo besteko ezgaitasunak dituzte.

Lakuntzako lantokian 33 pertsona aritzen dira, hiru hezitzaile zainzapean. Lantoki guztietan, bi multzotan banatuta daude pertsona guztiak: batetik, lan modalitatekoak eta, bestetik, zerbitzu okupazionalako taldekoak. Lan modalitatekoak bakarrik lanean aritzen dira, baina bigarren multzokoek lan arloari lotutakoak ez ezik, beste mota bateko ekintzak ere egiten dituzte, hezitzaileekin, terapeutarekin, psikologoarekin edo langile sozialarekin. “Esaterako, gazta egiten duten hainbat en-

presatan egon dira, Panasan ogia nola egiten duten ere ikasi zuten, edo Araian dagoen Nestle enpresan ere bisitan egon ginen. Horretaz aparte, txangoak eta beste mota bateko ekintza xumeagoak egiten ditugu lantokian bertan dugun gelatxo batean”, gaineratu du Razkinek. Ekintza horiek egitea gustatzen zaien arren, Razkinek aitortzen du ekintzak tartekatuta egin behar izaten dituztela, lantokian daudenek lanean egon nahi dutelako batik bat.

Astean behin, psikologo bat, terapeuta bat eta langile sozial bat hurbiltzen dira lantokira, eta bi astez behin hezitzaileekin batera bilera egiten dute, gertaeren berri jakin, estrategia zehatzak diseinatu edo jarraitzen dituen datuak partekatzeko, besteak beste. Lantalde horrek, bakoitzak bere esparrua badauka ere, lantokian dauden pertsona guztien profil bat egiten du, langile bakoitzak dituen gabeziak zehaztuz: sozialak, psikologikoak, edo beste mota batekoak. Balorazio horien arabera, eta lantaldearekin batera, estrategia diseinatu dira. Hori ez ezik, astean behin etortzen den lantalde horrekin ere ekintza bereziak egiten dituzte, adibidez, sukaldaritza tailerra.

## Lakuntza

Sakanako lantokiari dagokionez, 11 pertsona daude lan modalitateko taldean eta beste 22ak zerbitzu okupazionalako taldekoak dira. Hala ere, 22 horien artean, badaude 2 lan modalitateko jautzia eman dezaketenak noizbait Razkinek dioenez: “Pertsona bat Tasubinsan sartzen denean aditu talde batek baloratzen du nolako gaitasunak dituen, eta talde batean edo

bestean sartzen dute. Hala ere, hezitzaileek egiten dugun jarraitzea dela eta, ikusi dezakegun modalitatean dagoen bat ez dutela ongi baloratu, edo zerbitzu okupazionalako taldean dagoen batek lanerako balio duela”.

Duela bost urte bezalaxe, egun ere 33 pertsona ari dira Lakuntzako lantokian. Kopurua aldatu ez bada ere, kasualitate hutsa da. “Bizpahiru jubilatu egin ziren, bi hil egin ziren eta beste batzuk etortzeari utzi zioten hainbat arrazoiengatik. Latasa, Oskoz eta Lekunberriko langile bana ditugu, eta gainerakoak Sakanakoak dira”, azaldu du Razkinek. 1990ko hamarkadan, Iruñean orain adina lantoki ez zegoenean, Lakuntzako lantokian 45 pertsona ere aritu zirela gogoratu du Razkinek, horietatik hogeitaz, Nafarroako hiriburutik etorritakoak.

Izen emanda dauden pertsonen kopurua aldatu ez bada ere, Lakuntzako lantokiarekin lan egiten duten enpresen zerrenda aldatzen joan da urteekin Razkinek azaldu duenez: “Lehenengo urteetan Sakanako Isphording, Arfe eta Ufesarekin genituen akordioei esker lan asko genuen. Nahi baino gehiago ia. Hiru enpresak itxi egin zituzten, eta urte asko kanpora begira jarri gabe egon ostean, Tasubinsako beste lantoki batzuetatik lana ekarri behar izan genuen”. Gaur egun, Sakanako hiru enpresarekin azpikontratatu dituzte lanak

**"BIZITZEA ETA ERREALIZATUAK SENTITZEA LAGUNTZEN DUEN BITARTEKOA GARA"**

**Ostiraleko SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

**Astelehenetik ostegunera Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

**Ostiraleko gaiak:**

- Iker Uribe eta Joana Zigandarekin euren album ilustratuaz
- Gorka Mendinueta abeltzain gaztearekin
- Agenda

**beleixe** 107.3 FM  
www.guaixe.eus-en ON LINE

Lakuntzako lantokiak: Mekalde eta Aeroled arbizuarrak eta Altsasuko (Ispording kooperatiba bihurtu ostean sortutako enpresa). Horretaz aparte, BSH, Shneider Electric eta Frenkitentzat ere ari dira lanean. “Beste enpresa batzuk gutxietsi gabe, Tasubinsako zutabeak izan dira BSH eta Shneider Electric enpresak. Etorkizuna bermatu duten enpresak izan dira”, esan du Razkinek. “Beste lantoki batzuetatik ekarritako lanari esker ez dugu krisia hainbeste nabaritu. Hori izan da izan dugun zorterik handiena”.

### Krisia gainditzen

Urte txarrak pasa ostean, azken bi urteak “oso onak” izan direla dio Lakuntzako Tasubinsako arduradun den Razkinek: “2009 eta 2010 urtean ia seguru nago galerak egon zirela. Ez zegoen gastu guztiei eusteko adina lan. Orain, ordea, egoera onean gaude. 2015 eta 2016 urteak oso onak izan dira eta aurten ere ongi ari gara”. Eta datuek ere halaxe adierazten dute. Izan ere, Tasubinsa %2,1 hazi zen 2016an, 20,07 milioi euro fakturatu; alor industrialeko lanetatik 16,02 milioi, garbitegi industrialaren jardueratik 2,67 milioi, 920.000 euro zerbitzuetatik eta 461.000 euro logistikatik.

Lakuntzako Tasubinsaren lantokiarekin hitzarmena zuten enpresak aldatzen joan diren neurrian, bertako lana ere zertxobait aldatu dela dio Razkinek: “Lan gehiena manuala, mekanikoa da. Piezak egin, piezak poltsetan sartu, muntai txiki batzuk egin. Bezeroaren arabera aldatzen da gure lana, eta jendearendako aberasgarria da. Hasieran, agian, formazio berri hori ondo barneratzea kostatzen da, baina aldaketa horiek onak izaten dira”. Hori ez ezik, lan bat edo pieza bat egiteko enpresa baten eta Tasubinsako lantokien modua ez da beti berbera, eta batzuetan, ez beti, lan egiteko modua langileen arabera egokitu behar dutela argudiatu du Razkinek: “Batzuetan enpresan egingo luketen bezala egiten dugu, baina beste batzuetan, lana errazte aldera, prozesua fase gehiagotan banatzen dugu. Gure bitartez ikasten dute lana nola egin behar den”. Hezitzaile eta profesionalen lana, baina, ez da horretara mugatzen: “Lana egiteko moduak irakastearekin



30 urte daramatzate integrazioa bultzatzen. IÑAKI BERASATEGI

batera, lantokian dauden pertsona guztiak ahal dugun esparru guztietan zaintzea eta laguntzea ere bada gure egiteko nagusietako bat”.

Aeroledekin azpikontratatu-tako lana da momentu honetan Lakuntzako Tasubinsaren lantokian dagoen lan jarduerarik nabarmenena: Led foku baten muntaia osoa egiten dute. “Gainontzeko lanekin alderatuta, desberdina da. Bi pertsona aritzen dira lan horretan, gaitasun handiena duten bi langileak”.

Normalean, 25 urterekin sartzen da jendea Tasubinsan Razkinek azaldu duenez: “18 urterekin sar daitezke, baina ohi-koena 25 urte bete arte Isterria bezalako hezkuntza bereziko ikastetxeetan aritzea da. Gure lantokiari dagokionez, 25 urte dituztenak dira gazteenak, eta zaharrena 63 urte dituen langile bat da. Lantokia zabaldu genuenetik gurekin dauden pertsonak ere badaude, Lakuntzan 30 urte daramatzatenak, Mercedes, esaterako”.

Egunero, astelehenetik ostiralera, goizeko zortziak eta hogeian sartzen dira lanera. Tasubinsak azpikontratatu-tako garraio zerbitzuaren bidez joaten dira denak lantegira. Goizeko hamarrak aldera gosaltzeko ordu laurden izaten dute eta eguerdian bazkaltzeko ordu erdi izaten dute lan modalitatean aritzen direnek. Gainontzekoek, bazkaltzeko denbora gehiago har dezakete. Hala,

arratsaldeko lau eta erdietan amaitzen da lantokiko jarduera. Razkinek esanetan, lantokira joaten diren guztiek oso ongi barneratuta dute langilearen papera: “Guztiek lanera joan nahi dute. Euren senideek egiten duten bezala, eurek ere lanera joan nahi dute, soldata bat kobratu. Kobratu nahi dute, baina batzuk ez dira jabetzen zehazki zenbat irabazten duten, ez dute hori baloratzen. Langile sentitzen dira, eta jendeari erakutsi nahi izaten diote nola lan egiten duten”.

Hori horrela, Lakuntzako Tasubinsaren lantokian aritzen diren guztiak dituzten lan baldintzekin eta eremuarekin “gustura” daudela nabarmendu nahi izan du Razkinek: “Langile baten exijentzia duten arren, babestutako eremu batean daude eta oso gustura sentitzen dira”. Hain gustura daude bertan aritzen direnak, noizbait kanpoko enpresen eskaintzei uko egiten diete. “Enpresa batek langileak behar zituen, eta gure lantokian zeudenen artean egokienak zirenak bilatu, hautatu eta aukera proposatu nahi genien. Inork ez zuen nahi izan aukera hura hartzea. Tasubinsak beti itzuli nahi duenarentzat atea irekita izango ditu”. Kontrako bidea hartzen dutenak ere gutxi dira. Hau da, beste nonbaiten urte asko lanean eman ondoren Tasubinsan lanean hasi nahi dutenak, kasu isolaturen bat baldin badago ere.



## Beste behar batzuk

Behar bereziak dituzten pertsonak lan munduan integratuta sentitzea ez ezik, gizartean integratuta sentitzeak eta aisialdiak ere berebiziko garrantzia dute. “Alor horretan, arazo handiak dituzte. Bakoitza herri batekoa da, eta batera ibiltzea oso zaila da. Altsasun horrelako ekintzak antolatzen dira, baina gainontzeko herrietan ez dago behar hori asetzeko aukerarik”, nabarmendu du Peio Razkinek, Lakuntzako Tasubinsako lantegiko arduradunak. Egoera horretan, oso garrantzitsua da Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Arbizuko kiroldegian antolatzen dituen igeriketa eta gimnasia ikastaroak: “Tasubinsak azpikontratatu-tako garraioa erabiltzen dute, eta familiei ez zaie ezer kobratzen. Oso aukera ona da beraiendako”.

Dena den, Razkinek arabera, Sakanako lantokira jendea erakartzeko duten arazorik handiena etxebizitza tutelatuaren falta da: “Zangozako lantokian hiru sakandar daude, hemen bizitzeko aukerarik ez dutelako. Aspaldidanik egiten ari garen eskaera bat da. Zaintza bereziak egiten dizkieten pertsonak behar dituzte batzuek”.



ASTEKOA

ANABEL ARRAIZA ARTIEDA

## Dispertsioaren minak

Ia 10 urte kartzelaz kartzela anaia, koinatu eta osabarekin egon ahal izateko, eta bidaiak ez dira batere samurrak.

Dispertsioaren beste egun bat. Murtziara bidaia; senideok, senide izate hutsagatik gu ere zigortuak gara ere.

8 orduko bidaia egin eta gero, ordu eta erdi irauten duen bisa gozatzeko aukera: elkar besarkatzeko unea, elkarrekin egoteko aukera, bai barrukoak eta bai kanpotik goazenok pilak kargatzeko unea. Ondoren, asteburuak ematen duen momenturik gogorrenetakoa: anaia, koinatua eta osaba bertan geratzen dela ikusten duzun unea. Barruan dagoenarentzat ere ez da samurra: badaki bera ikustera joateko egin beharreko guztia, eta haurrekin goazenean zer esanik ez. Oso urduri egoten da badakielako errepidean goazela, badakielako gastu handi bat suposatzen duela (gasolina, autopistak, janak, lo egitea...), bera ikustera sartzerakoan pasa beharko ditugun miaketak daudela, azken finean bera ikustera joateko traba askori aurre egin behar diogula.... Eta guzti hori gutxi ez balitz, gure kasuan bost izateagatik ez dugu aukerarik elkarrekin sartzeko...beti bat kanpoan geratu beharrean da. Orduan ere zigortuak. Berak gozaten ditu une horiek eta indarra ematen diote bertan bizirauteko, baina sufrimendu bat da etxetik atera eta etxera iristen garen arte, ezjakintasunezko beste 8 ordu geratzen baitira.

Dispertsioarekin bukatu beharra dago. Noizbait ametsak egia bihurtuko direlakoan pausoak ematen jarraituko dugu berez aitortua duten familia-bizitzarako eskubidea bermatu dadin.

## HARA ZER DIEN

### Ez badugu errefuxiatuekin hitz egiten, hilko ditugu

#### MANKOMUNITATEKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Nola jokatzeko dugu gizakiok ezezagunaren aurrean?

Beldurra munduko armarik indartsuenetakoa da, gaur egun. Politikoek erabitzen duten arma, jendea kontrolatzeko, eta auzokidea kontrolatzeko. Auzokoa ongi ezagutzen ez dugunean, beldurra proiektatzen dugu berarengan. Hezkuntza arazoa da azken finean, hortaz, hezkuntzaz arduratzen diren politikariak behar ditugu.

Gero eta errefuxiatu, migratu, eta desplazatu gehiago dago munduan. Eta haiekin hitz egin behar dugu, komunikatu behar dugu, bestela, hilko ditugu. Heriotzatik ihes datoz, jarraituak direlako, ez dutelako hil nahi, haien lurraldeetako agintarien

aurrean ahulak direlako. Eta guk, dakartena, eta datozenak entzun ordez, harresiak sortzen ditugu, zurrumurrak, poliziarengana bidaltzen ditugu berbidatzen... Solidarioak izan behar genuke haiekin, zaindu beharko genituzke, pertsona haiek haien sufrimenduari buruzko bukatzeko premia dutelako.

Munduko gizaki guztiak konektatzen dituen, sentimenduak eta emozioak dira. Izan ere, komunikazio egoki batek ekarriko du bakea gizakien artean eta munduan. Kanpotik datozenak, iheslariak, errefuxiatuak eta pertsona migratuak, modu ezezagun eta desberdin batean garatu diren gizakiak dira. Ez dira mamuak, desberdinak

soilik. Bidea ez da erraza izango, baina bakerako bidea bilatu behar da, bestea onartzeko modua, harengana hurbiltzeko sentimendu eta emozio onez, berarekin egoki komunikatzeko bidea. Bakea lortzeko. Elkar ulertzeko.

Bilboko portuan berriki eraiki den harresia altxatu ordez, debeka dezagun berriro tonaka arma ateratzea Bilbotik bertatik (10.000 tona arma 2016an), gerran dauden lurraldeetan salduko direnak. Gertakizun horiei izan behar diegu beldurra, hori onartzen duten politikariei, eta ez heriotzatik ihesi datozen gizakiei. Hori bultzatzen dutenak dira benetazko mamuak, eta ez sufrimendua pairatzen duten zu eta ni bezalako pertsonak.

## GUTUNAK

### Oihan Barandallaren gutuna Lannemezango espetxetik

OIHAN BARANDALLA GOÑI

EUSKAL PRESO POLITIKOA

Herritar maiteak!

Zer moduz? Gutun labur honen bidez herritarrek agurtu nahi ditut lehenbizi. Ez dira alferrik pasa urteak!

Dagoeneko hamar urte daramatzat estatu frantziarreko ziega ilun hauetan gatibu eta herritarren elkartasun eta maitasunak urte guzti hauetan indartsu eta tinko eusteko ezinbesteko izan dira. Bijoakizue, beraz, lehenik nire esker ona eta begirunea!

Gatazkaren konponbideak itxi gabeko ondorioak ditu oraindik orain. Ehundaka gara estatu espainiarreko zein frantziarreko kartzeletan sakabanaturik eta eskubide oro ukatuz gauzkatzen euskal herritarrek. Zer esanik ez iheslariak, munduan barrena

dabiltzanak! Ezingo da benetako bakerik eraiki, bizikidetzan aurrerapausurik eman, kartzelan eta erbestean euskal herritar bakar bat dagoen artean. Abenduaren 9an Parisen antolatu den mobilizazioaren berri izan dut. Estatu frantziarrari, Euskal Preso Politiko guztien askatasuna

lortze bidean, ezartzen digun salbuespenezko espetxe politikarekin amaitzea exigitu nahi zaio. Bertan parte hartzera gonbidatu nahi ditut etxarriar zein sakandarrak. Abenduaren 9an DENAK PARISERAT! Besarkada iraultzaile bat eta eutsi goiari!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gixane Andueza Goikoetxea  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzaileak:**  
Iñaki Berastegi  
Rebeka Mendoza  
**Zuzentzailea:**  
Patxi Flores

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
**Maketatzailea:**  
Ruben Imaz Alcaide  
lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña

publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107  
618 882 675  
661 523 245  
**Koordinatzailea:**

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Jendea Altsasuko osasun etxera sartzen. ARTXIBOA

# Medikuak, ordezkorik gabe, lanez gainezka

Etxarri Aranatz eta Altsasuko osasun etxeetako medikuek jakinarazi dutenez, hilabeteak dira haien bajak, oporrak, baimenak eta zaintzak ordezko medikuekin betetzea ezinezkoa dela. Dauden medikuak besteenak betetzen ari dira

## SAKANA

Etxarri Aranatzko eta Altsasuko osasun eskualdeetan aritzen diren medikuak lan saturazioa dutela gaztigatu dute. Hainbat hilabete daramate gehiegizko lan kargarekin, haiek ordezkatzeko ez baitago behar bezain beste medikurik. Beraz, mediku batek oporrak, baja edo baimeina hartzen duenean, ordezkorik ez dagoenez, osasun etxeko beste mediku batek ordezkatu behar du eta bere lanaz aparte kidea-rena egin. Udan atsedena hartzeko aukerarik ez dute izan. Orain, udazkenarekin eta neguarekin, lan karga handitu egiten zaie. Medikuek diote haien egoera "kritikoa" dela.

Ordezko mediku faltarako hainbat dira arrazoiak. Batetik, azaro akaberan oposizioak daude eta medikuak haiek prestatzen ari dira. Bestetik, Euskadiko edo Errioxako osasun zerbitzuek eskaintzen dituzten lan baldintzak hobeak dira eta medikuek haietara jotzen dute. Gainera, jubilatzea aurreikusia dagoen mediku kopurua baino askoz gutxiago daude. Iruñerrian Lehen Arretako mediku postuak sortu dira eta libre zeudenak hara jo dute. Ondorioak, esandako lan saturazioa, batetik, eta prestakuntza saioretara joateko ezintasuna, bestetik. Medikuek bezala, pediatria eskasia ere handia da aspaldi. Erizainen kasuan ez

da halakorik gertatzen eta ordezkoak kontratatzeke ez dago arazorik.

Lehen Arretako zerbitzua Osasunbidearen oinarri bilakatzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak. Horrek gure medikuendako lan karga gehiago esan nahi du: etxeko ospitalizazioa, kolon minbizia atzemateko kanpaina, ekografiak egitea, gaixo kronikoei arreta eta beste. Guztiaz kezu asteburuan Nafarroako prentsan gutuna argitaratu zuten ibarreko eta beste osasun eskualdeetako medikuek.

Asteartean bilera izan zuten Osasunbideako ordezkariekin Altsasuko osasun etxean. Gobernuordezkariak ordezkorik



Irurtzango osasun etxera sartzen. ARTXIBOA

## Osasun eskualdeak

### Irurtzun

Arakildik Arruazuraino hartzen du Sakanan. Baina ibarretik kanpoko herriak ere bere ardurapean ditu: Lekunberri, Betelu, Larraun eta Araitz aldekoak. Sakandarrei zerbitzua emateko Irurtzunen 2 mediku, 2 erizain, 2,5 administratibo, pediatria bat bere erizainarekin eta gizarte langile bat daude eta Uharte Arakilgo kontsultategian mediku bat eta erizain bat.

### Etxarri Aranatz

Lakuntza eta Urdiain artean 4 mediku daude (1 Lakuntza-Arbizu, 2 Etxarri eta Ergoiena, 1 Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain), 4 erizain (medikuen banaketa bera), 4 administratibo, pediatria bat eta bere erizaina eta gizarte langile bat. Bi urtez Santanderren bizi zen Moldabiako mediku bat aritu da osasun eskualdean eta hura egon den bitartean ederki moldatu dira. Baina joan egin da. Pediatria amatasun bajaran dago eta hura ordezkatzeko zuenak alde egin du. Lehen Arretako medikuek kontsultak pasatu dituzte, baina haurrek pasa beharreko azterketak pediatrien kontu direnez, ezin dira egin.

### Altsasu

Burunda mendebaldeko hiru herriek osatzen dute Altsasuko osasun eskualdea eta honako plantilla du: 6 mediku (4 Altsasun, 1 Olatzagutian, 1 Altsasu-Ziordia), 6 erizain (berdin banatuta), pediatria bat eta erdi, pediatriako erizaina (azaroan beste lanaldi erdia hasiko da), 4,5 administrari, eta gizarte langile bat. Ordezkapenak egiteko mediku bat dute Altsasuko osasun eskualdean baina, ezin iritsi, oporretan minimoen azpitik egon direla aitortu digute. Batzuen oporrekin batera bajak egon direlako. Halakoetan larrialdi bat gertatu eta medikua Iruñera joan behar izanez gero osasun etxean bakarria geldituko litzatekeela pentsa izan dute batean baino gehiagotan.

ez dagoela berretsi zieten, beste proposamenik ez zieten egin ibarreko sendagileei. Medikuek lan baldintza hobeagoak eskaintzen ez dituztelako dela jakinarazi zieten. Gertatzen ari dena izotz-mendiaren punta dela adie-

razi zuten. Konponbiderik ez dute jasotzen. Bitartean osasun eskualdeetan mediku gutxiagoren artean zerbitzua eusten ari dira. Baina egoerarekin kezkatuta daude: ez dakite noiz arte jasango duten egoera.

 <b>EGOKI</b> VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com	 Isolamendu nukleo indartsua	 Beirak lehorrean jarrita
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea			

# Bezeroari alfonbra gorria jarri zioten Altsasun

Merkataritzaren festaren bigarren edizioan izan zen hori, pasa den ostiralean. Altsasuko Dendarien Elkarteko eta elkartekoak ez diren 46 establezimenduk herriari bizi eta giro ederra eskaini zioten

## ALTSASU

Atea zabaltzearekin batera bertako dendariak bere bezeroei ahalik eta zerbitzu hobereana eskaintzen saiatzen dira egunero. Ostiral arratsaldean, gainera, alfonbra gorria jarri zieten. Altsasuko merkataritza festaren bigarren edizioaren kontura ospakizunean parte hartu zuten 46 establezimenduek ate aurrean alfonbra gorria zuten, bezeroa berezi senti-arazteko.

Baina ospakizunaren kontura eskaintza berezia egin zuten establezimenduek eta ostiral arratsalde baterako Altsasun ezohikoa den animazioa egon zen kaleetan. Jende ugari atera zen kalera. Eta bat batean topo egin zenezake trikitilariekin, txistulariekin, Zubiondo abesbatzarekin, Tarima Beltza antzerki taldeko aktoreekin... Establezimenduetan, berriz, moda desfileak, giza-manikiak, photocallak, makina bat tailer eta hainbat eta hainbat dastaketa mahai izan ziren.

## Balorazioa

Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) antolatu zuen merkataritza festa. ADEko kideak ez dira ospakizunaren balorazioa egiteko elkartu. Baina bere presidente Elena Aldasorok esan



Makina bat jende atera zuen kalera merkataritza festak.

digunez, ekimenagatik jende askok zoriondu zituen ostiralean bertan. Aldasorok, hitz egiteko aukera izan duen elkarteko kideek bezala, festarekin "oso pozik" dago. "Jende asko mugitzeko gaitasuna izan dugu. Baita elkartean ez zeuden dendak inplikatzeko gaitasuna ere. Gainera, kalean giro super-polita egon zen". Barrura eta kanpora begira hobetzeko gauzak egonen direla pentsatzen badu ere ospakizunak utzitako aho-zapore gozoagatik Aldasorok altsasuarrek zoriondu ditu.

Ostiralekoa Altsasuko merkataritza bizirik dagoela eta eskaintza zabaldu duela erakusteko aukera izan zen. Baina Altsasuko Dendarien Elkartearen festa hori baino bi aste lehenago bestelakoa zen zabaldu nahi izan zuten mezua. 40 establezimenduetan baino gehiagotan haien itxiera iragartzen zuten kartelak jarri zituzten. Ekimen horrekin dendariak altsasuarrei dendek herriandako eta kaleandako duten garrantziak eta balioak ohar-tarazi nahi izan zieten. Ondoren, kanpaina alaia etorri zen.



Fran Karasatorre saria eskutan duela. UTZITAKOA

## Karasatorre harategia bigarren Nafarroako Txistorra Txapelketan

Etxarriarrek duela bi urte irabazi zuten txapelketa hori eta 2013an hirugarren sailkatu ziren.

## LAKUNTZA / ETXARRI ARANATZ

Nafarroako Harakinen Gremioak antolatuta, 12. Nafarroako txistorra txapelketa jokatu zen Iruñeko Milagrosa auzoan atzo. Lehiaketara aurkeztutako 45 txistorren artean epaimahaiarendako onena Lizarrako Felix Aramendia-rena izan zen. Bigarren saria Etxarri Aranazko Karasatorre harategiko Fran Karasatorre Nagorek jaso zuen. Zazpi finalisten artean beste bi sakandar izan ziren: Aitor Marileñarena Mañeru, Etxarriko Mariñeletz harategikoa, eta Jose Mari Agi-

rre Mauleon, Lakuntzako Agirre harategikoa. Lehiaketara aurkeztu ziren 45 txistorretatik %17 sakandarrak ziren.

Etxarri Aranazko Karasatorre txistor egileari errezetat galde-tu genion duela bi urte, txapelketa irabazi zuenean eta esan zigunez, "bizi guztiko" errezeta erabiltzen dute hestekia egiteko, "amonarekin ikasitakoa". Karasatorrek zehaztu zuenez, "guztia naturala da, haragia, piperrautsa, baratxuria eta hestea. Dena kalitatezkoa. Eta guztia maitasun handiz egina".

## Elkartasunezko bigarren eskuko azoka eginen da igandean

Errefuxiatuen alde ibarrean lan egiteko Sakana Harrera Harana taldearen alde izanen da jasotako dirua

## IRURTZUN

Itxipuru taldeko kideak 33. aldiz bigarren eskuko azoka antolatzen ari dira. Iganderako dena prest dute. Makina bat liburu, etxetresna elektriko, arropa, disko, altzari, jostailu... guztiei

bigarren bizi bat eman nahi diete, prezio onean salduz. Kontsumo arduratsua sustatu nahi du horrela Itxipuru taldeak igandean, 10:00etatik 14:00etara, plazan. Azokaz aparte umeandako tailerrak eta jolasak izanen dira,

musika eta pintxo beroak eskaintzen dituen barra.

Ohi bezala, ateratako dirua ekimen bat laguntzeko izanen da. Oraingoan Sakana Harrera Harana taldearen aldeko azoka izanen da. Aurten ibarrean sortu den taldeak errefuxiatuen errealitatearen inguruan sentsibilizatzea du helburu. Sakana Harrera Haranakoek taldearen berri ematen. Gainera, errefuxiatu eremuen inguruko argazki erakusketa jarriko dute eta zenbait irakurgai ere.



Azokaren osagarri, elkartasun afarian Siriako jakiak dastatu zituzten. ARTXIBOA



Otsaportillon 2016an ateratako bost hezurdura identifikatzeko daude, eta Urbasako sarioian 2015ean ateratako bat. ARTXIBOA

# Otsaportillon gorpuzkin gehiago opatu dituzte

Aranzadi zientzia elkarteko kideak lastailaren 12a eta 15a bitartean jaitsi ziren berriro. Bi hezurdura eta makina bat hezur berreskuratu zituzten. Zein diren identifikatzeko DNA probak egiten ari dira

## SAKANA

Satorrak espeleologia taldeko kideak 1979an lezera jaitsi zirenean 10 metro egin zuten behe- ra eta 14 gorpu opatu zituzten (13 gizonezko eta emakumezko bat). Aranzadi zientzia elkarte-koak joan den urteko garagarri- laren aurreneko bi larunbatetan lezera sartu zirenean 7,8 metro egin zuten behe- ra eta metalezko kutxan gordeak zeuden hezur guztiak jaso zituzten, zortzi per-sonarenak.

Bitartean zer gertatu zen le- zeak sakonera galtzeko eta he- zurdurak ez egoteko? Batetik, 1979an Jimeno Juriok erailda- koen inguruan hainbat albiste argitaratu ondoren, lezea pro- fanatu egin zuten. 1982an seni- deek metalezko kutxa batean sartu zituzten hezurak, tartean zortzi buruhezur. Bestetik, pro- pio kaskailu pila handi bat bota zuten, arrastoak ezabatzeko.

Pilareko zubian Aranzadi zien- tzia elkarteko kideak bi metro- ko altuera eta kono itxura zuen

kaskailu pila lezetik atera zuen. Lezearen zoruraino jaitsi nahi zuten kaskailuaren azpian edo artean hezurdura gehiago ote zegoen jakiteko. Lanak emaitza eman du: bi hezurdura eta hezur pila berreskuratu dituzte Aran- zadikoek, kaskailu pilaren 0,4 eta 2 metroko sakonera zeude- nak. Beraz, Otsaportilloko lezean gutxienez 11 pertsona erail zi- tuztela ziurtatu dute zientziala- riek. Pistola bat eta zenbait bala ere berreskuratu dituzte.

Opatutako hezurak zeinenak ziren identifikatzeko DNA pro- bak egiten ari dira. Haiek Nafar- roako Gobernuak sortutako DNA bankukoekin parekatuko dituzte identifikazioaren bat lor- tu asmoz. Aranzadikoek, gaine-

**IDENTIFIKATZEKO,  
SENIDEAK GALDU  
ZUTENEK DNA  
LAGINAK EMATEKO  
ESKATU DUTE**

ra, analisi antropologikoa eta patologikoa egingen dute. Iker- ketak despeditu ondoren iden- tifikatutako pertsonen hezurak euren familiei bueltatuko diz- kiete.

## Egitekoak

Joan den urteko ikerketak ber- deratzi pertsonen hezurak opa- tzea ekarri zuen. DNA proben bidez haietako lau Francisco San Roman Galbete (Urdiain), Meliton Agirre Lezea (Olatza- gutia) eta Domingo eta Francis- co San Roman Otxoa anaiak (Ziordia) zirela jakin zen. Saroi- ko lezean 2015ean egindako az- terketaren ondoren Narciso Artola Razkin, Clemente Araña Migel, Paulo Garziandia Arin, Andres Gonzalez eta Antonio Maiza Miranda etxarriarrak identifikatu zituzten. Gerrakoan eraildako senideak dituztenak eta haiek non dauden ez daki- tenek Aranzadirekin harrema- netan jartzeko eskatu dute zien- tzia elkartetik.



Joan den urtean hiru uharteak fusilatutako omendu zituzten. LARRAITZ AMADOZ

## Iberon fusilatutako Martirenari azken agurra emanen diote

81 urteren ondoren Uharte Arakilgo hilerrian ehortziko dute gazte errepublika zalearen hezurak.

## UHARTE ARAKIL

Victor Martirena Alegriari uhar- tearrek azken agurra larunbatean emanen diote. Egitarau xumea prestatu dute. 11:30ean haren gorpuzkinari harrera egingen diote joan den urtean mustuta- ko memoria oroigarriaren on- doan, Seme-alaben plazan. Har- rera egin eta gero uhartearen segizioa hilerria joan da eta han ehortziko dute. Uharte Ara- kilgo Udalak eta 1936-2016 Uhar- te Arakil, 80 urte memoria gal- tzen taldeak antolatu dute azken agurra Martirena zena.

Victor Martirena Alegria 1914an jaio zen Jose eta Patri- ciaren semea. Joxe hojalateroa- ren semea zen eta familiari Ho- jalateroana hots egiten zioten. Nekazaria, UGTko kidea zen. 22 urte zituela atxilotu eta Iruñean espetxeratu zuten. Iberon erail- tzeo atera zuten espetxetik, 1936ko lastailaren 28an. Pasa

den larunbatean 81 urte bete ziren, beraz.

## Indusketa

Aranzadi zientzia elkarteko ki- deek Iberoko Zurbao parajea- n indusketa egin zuten 2015eko abenduan. 1936ko estatu kolpea- ren ondoren fusilatutako 25 per- tsonen hezurduren bila hasi ziren lanean. Haien artean hiru uharte izanzen zirela pentsa zen. Aranzadikoan lanak zazpi hezurdura azalarazi zituen. Tar- tean Victor Martirena Alegria uhartearen semea zen. Ustez han zeu- den Silverio Astiz Ezkurdia eta Silverio Astiz Lakuntza aita-se- me uhartearen gorpuak ez zi- tuzten identifikatu.

Joan den urtean hiru uhar- tearren erailketaren 80 urte- rrena bete zela eta udalak San Juan plazari herriko seme-alaben izena eman zion eta eskultura jarri zuten.

## Txioka haur ikastolak hezitzaileen lan poltsa eratuko du

Altsasuko haur ikastolak Haur Hezkuntzan titulua duten hezi- tzaileen behin behineko kontra- tazioak egin ahal izateko lan poltsa eratuko du azaroaren 10 arte. Izena emateko esku-orria txioka.blogspot.com.es- jaso eta curriculumak@inigoaritz.eus- ra bidali. Titulua, EGA edo bali- akidea, elikagaien maneirako txartela eskatzen dira.

**BIKAIN**  
GARAJEA, S.A.L.

948 480 037 Arbizu  
948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika  
Elektrizitatea  
Txapa  
Margotzea**

# Bakaikuko abesbatzaren urteurren ospakizunak

Bakaikuko elizako abesbatzak kantuan ospatu zuen bere 25. urteurrena: larunbatean beste bi abesbatzekin kantatuz eta domekan, sesio bikoitzarekin, goizean aurora eta eguerdian meza edertuz. Majo bazkalduz despeditu zituzten ospakizunak

## BAKAIKU

Domekan despeditu ziren Bakaikuko elizako abesbatzaren 25. urteurreneko ospakizunak. 07:00etan 30 bat kide aurora kantatu zuten herrian barna. Eguerdian, elizan, Bakaikuko eliz abesbatzak bere kantuekin meza edertu zuen. Egun berezi horretan aurretik abesbatzako kide izan direnak eta Etxarri Aranatz eta Iturmendiko eliz-abetesbatzako kideak batu zitzaizkien. Guztira 50 bat ahots izan ziren mezan kantatu zutenak.

Elizkizunaren ondoren auzatea izan zen. Urteurrena ospatzeko bazkarian 50 bat pertsona elkartu ziren. Bestalde, asteburuan Bakaikuko elizako abesbatzaren historia laburbiltzen zuen argazki erakusketa ikusteko aukera izan zen. Larunbatean, urteurren ospakizunak hasteko, Paz de Ziganda eta Etxarri Aranatzko abesbatzen kontzertua izan zen. Akaberan bi abesbatzako eta Bakaikuko elizako abesbatzako kideek *Maitia nun zira* eskaini zuten. Eliza beteta zegoela egin zen musika emanaldia. Ondoren elkartera joan ziren abesbatzako kideak, guztien auzatea prest baitzegoen. Eta elkarrekin, giro onean, ordu txikiak arte kantuan izan ziren.



Larunbatean hiru abesbatza elkarrekin aritu ziren. UTZITAKOIA

## Historia, labur

Urteurrena egin duen abesbatzaren aurretik bazen beste abesbatza bat baina Javier Azpiroz apaizak animatuta 1992an bakaikuar taldea entseatzeko hasi eta ahots teknika hobetzen hasi zen. Dauden elizkizun eta egon litezkeen hilez aparte, hurrengo hitzordua musikarien egunean izanen dute, azaroaren 22an, Santa Zezilia egunean. Iturmendikoarekin batera aritzen dira eta urtetik urtera txandakatu egiten dute kantatzen duten herria.

Abesbatzaren errepertorioan eliz kantak nagusi badira ere, festetan euskal kantuen emanaldia egiten dute. Nafarroako auroren topaketa egunean parte hartzen dute. Betelukoekin batera, bakaikuarrak dira han euskaraz kantatzen duten bakarrak. Abesbatzatik 25 urte hauek 50 bat pertsona pasa dira. Gaur egun Bakaikuko elizako abesbatzak 20 bat kide ditu eta Osane Leitzaren zuzendaritzapean aritzen da. Ostegunean, 21:30ean, elkartzen dira entseatzera.

## Gazte eguneko mintegietan parte hartzera deitu dute

Sakanako gazte eguna azaroaren 11n ospatuko da Ziordian. Goizean lau mintegi izanen dira

## ZIORDIA

Ibarreko gazte asanbladetak kideak Sakanako gazte eguna aurkeztu zuten ostiralean. Ziordia izanen da ospakizun hori hartuko duen herria, azaroaren 11n, larunbatean. Gazte asan-

bladetako kideek Ibarreko gazteak elkartzeko egitaraua zabalatu dute, baina dena ez da festa izanen. 10:30ean hasita lau gairen inguruko mintegi bana izanen da: lana, feminismoa, euskara eta errepresioa.



Gazte asanbladetak kideek haietan parte hartzeko deia egin dute. Bide batez, egun horretarako Idoia Granizorekin eta Saats Karasatorrekin bertso-bazkaria dago eta txartelak ohiko tokietan daude.



Sakanako ikastolen mendi taldea Auntzetxean. ARTXIBOA

## Udalak Auntzetxe bordaren erabilera arautu du

Indarrean dago Auntzetxeko aisialdiko jarduera pribatuertako erabilera arautzen duen ordenantza

## ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranatzko Udalak uztailaren 5eko osoko bilkuran hasierako onospena eman zion Auntzetxe bordan aisialdiko jarduera pribatuertako erabilera arautzen duen ordenantzari. Jendaurreko epean aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, ordenantza behin betikoz onetsi da eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 23an. Besteak beste, Auntzetxea erreserbatzeko bete beharreko prozedura, tarifak, ardurak, erabileren mugak eta debekuak eta zehapenak jaso dira ordenantzan.

## Erreserbak

Auntzetxe borda beheko basoan dago, Olanon. Aipatu borda zabalik egongo da eta, mendiko aterpe gisa funtzionatuko du. 10 lagun bitarteko taldeen kasuan ez da borda alde aurretik erreserbatu behar, baina gomendagarria da erreserba egitea. Izan ere, aterpe barruan gehienez ere 29 lagun sartu ahal dira, eta Etxarri Aranatzko Udalak erabiltzeko erreserbak onartuko ditu gehieneko edukiera bete arte. Eskabidea idatziz egin behar da eta zein erabilera egin behar den zehaztu behar da. Motordun ibilgailuekin bertaratu nahi izanez gero, matrikulak eman behar dira.

Gehienez gau bat pasatu ahal da Auntzetxen, kirol, kultur, hezkuntza edota zientzia jarduerak egiteagatik bertan gaua pasatzea ezinbestekoa bada. Bi

gauetara ere luzatu ahal da egonaldia. Behar bezala arazoitutu kasuetan, Etxarri Aranatzko Udalak, alkatetzaren ebazpen baten bidez, ordenantzako baldintzak aldatu ahal izango ditu eta ikastetxeendako baimen bereziak eman ahal izango ditu. Udalak sartzea ukatzeko eskubidea ere izango du.

Tarifei dagokienez, 10 lagun bitarteko erreserban, egun bateko erreserbagatik 30 euro ordaindu behar da, egun bat eta gau bat eginez gero, 45 euro, eta bi egun eta gaua eginez gero, 60 euro. 20 lagun bitarteko taldeek, eguneko erreserbagatik 50 euro ordainduko dute, eguna eta gauagatik 75 euro eta 2 egun eta gauagatik 100 euro. Bukatzeko, 29 bitarteko taldeek 80 euro ordainduko dituzte eguneko erreserbagatik, 120 euro egun bateko eta gau bateko erreserbagatik eta 160 euro 2 egun eta gaua bertan emateagatik.

Etxarri Aranatzeko erroldatutakoek edo Etxarrin etxea dutenek, ez dute Auntzetxe borda erabiltzeagatik tasa ordaindu behar izango, baina 10 lagunetik gorako taldea osatzen badute, fidantza jarri behar dute udalarekin. Jakina, erabiltzaile guztiek Auntzetxe borda eta inguruak garbitu behar dituzte eta instalazioak egoera onean mantendu behar dituzte. Kalteak badaude, haiek konpontzeak dakarren gastu osoa gehi %20 ko erretegia ordaindu behar dute Etxarri Aranatzko Udalarari.



# Tokiko produktuak: onurak ikastetxean ere

Sakanako ikasleendako nutrizio aldetik dituen onurak eta ibarreko ekonomian duen eragina aztertu zuten, Iruñeko Udalaren esperientzia ezagutzearekin batera. Tokiko produktuekin menu osasungarriak egiten ikasteko aukera dago orain

## SAKANA

Lakuntzako kultur etxean 35 pertsona elkartu ziren lastailaren 25ean. Sakanako Garapen Agentziak (SGA) eta Sakanako Eskola Txikiak jardunaldia zen eta bertaratuek Gure haurren elikadurarekin zer? galderari zein erantzun emanen zioten jakin nahi izan zuten. SGako elikadura arduradun Oskia Gorostiaga San Sebastianek azaldu digunez, hiru ikuspegitik landu zen gaia. Lehenik, Arrea agroekologia elkarteko Ainara Morenok bertako produktuen kontsumoak ingurumenean, ekonomian eta gizartean duen eragina azaldu zuen.

Segituan Ana Carmen Huartek, Xalok-eko dietista-nutrizionistak tokiko produktuak jatearen onurak azaldu zituen. Eta, bukatzeko, Iruñeko Udal Haur Eskoletako gerente Alfredo Hoyuelosek haien ereduaren berri eman zuen. Izan ere, Iruñeko Udalak haurrentako tokiko produktu ekologikoz osatutako elikadura eskaintzen hasi da eta azalpenak eman zituen.

Gorostiagak azaldu digunez, ikastetxeetako jangelak tokiko ekoizleak eta tokiko ekonomia sustatzeko aukera izan daitezke. Gaur egun ibarreko jangelez catering enpresak arduratzen



Ikastetxeetako ordezkariak bilduta. SGA

direla azaldu digu. Baina gaierikiko kezka badagoela gaineratu du: "Arbizuko eskolan haiaiketakoan bertako produktuak ematen hasi nahi zuten eta hortik sortu zen jardunaldia antolatzeke aukera". Entzundakoa ikastetxeekin bat egiten duen aztertu beharko dute orain gurasoek, ikastetxeek eta ekoizleek, eta, ondorioz, jangela beste ikasgai bat bihurtzen den.

## Sentsibilizazioa

Aipatu jardunaldia eta aurretik umeen elikaduraren inguruan

egin zen beste saio bat gurasoek, helduei zuzenduta bazegoen ere, Sakanako Garapen Agentzia ibarreko ikasleak bertako produktuen garrantziaz sentsibilizatzeko tailerrak antolatu ditu. Mamia edota gailetak zer materialerekin eta nola egiten diren ikasi dute ikasleek bertako ekoizleekin.

## Menu osasungarriak

Tokiko produktuak eguneroko erabiltzen animatzeko eta horiek nola prestatu ikasteko Sakanako Garapen Agentziak jardunaldia antolatu du astearterako: Sakana dastatuz, sukaldaritza osasungarria bertako produktuekin. Ana Carmen Huarte dietista nutrizionistak emanen du saioa Etxarriko Xalok-en. Asteartean, 18:00etan hasiko da. Parte hartu nahi duenak ogorostiaga@sakanagaratzen.com e-postan eman behar du izena.



Lizarragako ikuspegia. ARTXIBOA

## Energia kudeaketa jasangarriari buruzko jardunaldia

Energia kudeatzeko hiru adibide emanen dituzte asteazkenean, 17:00etan, Lizarragako kontzeju-etxean

## LIZARRAGA

Sakanako Garapen Agentziak Nafarroako Gobernuaren eskariz antolatu du energia kudeaketa jasangarriari buruzko jardunaldia. Heldu den asteazkeneko saioan, hasteko eta behin, Lizarragan jarri nahi den energia sortzeko mikro-sarea zertan datzan azalduko da. Ur biltegi zaharra eta kanposantu ondoan egiten den beste bat elkarrizketatu eta batetik bestera ura ibili araziz energia nola sortu nahi den azalduko dute. Turbinetatik ura pasatzean sortzen den argindarra argiteria publikoa pizteko bideratu nahi luke kontzejuak. Aldi berean, enpresek euren sorgailuak probatzeko toki egokia izan daitekeela ere uste dute Lizarragako Kontzejuak.

Herriko esperientziaren berri eman ondoren energia kudeaketa sistema eta software berriak martxan jarri dituzten bi eredu

azalduko dituzte. Batetik, eMehir tresna, Gipuzkoako zenbait herrietan martxan jarri dena eta, bestetik, Leitzako udalaren energia plana. Azken hau Esetek enpresak egin du eta 2020rako gastua, energia kontsumoa eta CO2 emisioak murrizteko helburua jarri du.

Nafarroako Gobernuak 2030 Nafarroako Energia Planak, besteak beste, herritarren artean beste energia-kultura sustatzea du helburu. Horretarako, prestatuntza, informazioa, sentsibilizazioa eta hiritarren parte hartzea sustatuz. Foru administrazioak herrialdean barna energia sentsibilizazio eta zabalkundeko aurreneko jardunaldia antolatu du eta Lizarragako saio hori kokatzen da. Saio horietan, besteak beste, mugikortasun jasangarria, autokontsumoa edo energia berriztagarriak landuko dira.

**PORTUKO OKINDEGIA**  
Altsasu · 948 563 822 · Lantegia · 948 467 153 · Etxarri Aranatz · 948 460 988

**BILTOKI**  
TABERNA · JATEKOA

**Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta**

Astehenetik ostiralera  
**Eguneko menua  
9€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 · Altsasu

**nerea cenoz**  
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu  
(Nafarroako Unibersitatea)

**Pisua kontrolatzeko dietak:**

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

**Patologia ezberdinetarako dietak**

- Kiroi-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

info@nereacenoz.com  
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan  
Estafeta 16, atzea · Lakuntza  
(Bostekoa masaje zentroan)

# Udalak "bizikidetza berrirako" motor

Hori bihurtzea nahi du Foro Sozialak Nafarroako udalak. Horregatik, ordezkariekin bilera egin zuen Iruñean larunbatean. Gatazkaren interpretazio kritikoa egiteko eskatu die ETari eta agintariei gatazkaren "irakurketa kritikoa" egiteko eskatu die

## SAKANA

Foro Sozialak *Marko lokaletatik bizikidetza eraikitzen: Esperientziak, aukerak eta Nafar udal ordezkarien balia bideak* saioa antolatu zuen Iruñean larunbatean. Hartan Nafarroako 80 udal ordezkariak parte hartu zuten. Eta alkateen mahai inguruan Javier Ollo Martinez Altsasuko alkateak parte hartu zuen.

Foroaren izenean Expe Iriartek eta Begoña Uhartek hartu zuten hitza. "Udalak herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik, nafar gizartearen baitan eman beharreko adiskidetzeko prozesu baten oinarriak eraikitzen hasteko oina-



Alkateen mahai inguruan parte hartu zuen Javier Ollo altsasuarrak. ©EITBNOTICIAS

rrizko motorea izan behar dute". Nabarmendu zuten, "beharrezkoa zaigu hurkoaren sufrimenduaren aurrean beste albo batera begiratu zuten horiekin adiskidetzeko. Eta sufrimendu guztiez mintzo gara, anbigutasun eta ekidistatziarik gabe". Horretarako, "beharrezkoa da aktore guztiok gertuko zaigun iragan horren gaineko irakurketa kritiko bat egitea". Kritika hori "kritikoa, eraikitzailea eta partekatua" izatea eskatu zuten forotik. Bai ETari bai egungo agintariei ariketa hori egitea eskatu diete. Udal ordezkariak, bestalde, "Nafarroan bizikidetza berri bat eraikitzearen alde lan egingo duten aktore" bilakatzeko eskatu zieten.

Foro Sozialeko ordezkariak jakinarazi zuten, Nafarroako instituzioen parte diren sentsibilitate politiko guztiak ordezkatura egotea bermatzeko eta bakoitzak bere testigantza eskaintzeko gonbidapenak egin zituzten eta hori ez lortzeagatik atsekabea azaldu zuten. Baina sentsibilitate guztiak elkartzeko saiakerak egiten segituko dutela jakinarazi zuten.

## Sobietar iraultzaz jardunaldia Altsasuko gaztetxean

Lastailean ehun urte bete dira Errusiar iraultza izan zela. Gertakari hori gogoan Altsasuko Gazte Asanbladak egitaraua prestatu du. Astelehenean, has-teko, *Diez días que conmovieron el mundo* filma eman zuten. Atzo, berriz, K17 ekimenekoek *Iraultza sobietarran garrantziya eta gaurkotatuna be 100. urteurrenien* hitzaldia eman zuten.

Hurrengo bi astelehenetan sobietar iraultzarekin zerikusia duten bi film ikusteko aukera izanen da. Hilaren 7an, 19:00etan, *El acorazado Potemkin* filmaren emanaldia hartuko du gaztetxeak. Asteartean, 19:30ean, *100. urteurrenien iraultza sobietarran irakaspenera* hitzaldia emanen du Iñaki Etaioek Askapenako kideak. Ostegunean, 19:30ean, *Urriko iraultzan irakaspenera gaurko egunetako* mahai-ingurua izanen da Altsasuko prestakuntza taldeak prestatuta. Despeditzeko, azaroaren 13an, 19:00etan, Lenin en octubre filmaren emanaldia izanen da gaztetxean.

**guaixe**

**BEHE RAPE NAK**

**beleixeguaixe**

**Errenta aitortpena %40**

**Bazkidearen kit-a**

Guaixe Fundazioa, Foru plaza 23-1.  
948 564 275 / 948 562 107. fundazioa@guaixe.eus

# LH institutuaren ikasketa zerbitzu proiektuari saria

Ikasleak euren praktikekin komunitatearendako onuragarria den zerbitzua eskaintzen ari dira eta estatuko 47 proiekturen artean lehen saria eskuratu du Sakana Lanbide Heziketa institutuarenak

## SAKANA

Ikasketa-Zerbitzuko Espainiako Sareak, Educok eta Edebek antolatutako Ikasketa-Zerbitzu Sariak abenduaren lehen banatuko dira L'Hospitalet de Llobregaten. Sakana Lanbide Heziketako (LH) bi irakasle eta bi ikasle LHko Elkartasuna eta Giza Eskubideak mailako saria jasoko dute. 48 proiektu aurkeztu ziren eta Sakana LHren Kooperazioa, gure nortasun ikurra egitasmoak epaileei "izugarri gustatu zaie, "hezkuntza kalitateagatik eta gizartearen eta komunitatearen duen eraginagatik". Joan den urtean, 17. sailkatu eta finalistak izan ziren. Bartzelona ondoko hirira joanen diren sakandarrek euren esperientziaren berri eman eta 2.000 euroko saria jasoko dute.

LHko ikasleek ikasketa prozesuan trebetasun eta ezagutza teknikoak jasotzen dituzte. Baina haiek praktikara eraman behar dituzte ere. Praktika profesional horietan egindako lana komunitateari zerbitzua emateko baliazkoa, haren aldeko zerbaitegitea da ikasketa-zerbitzua. Sakana LH institutuan soldadura eta galdaragintza gradu ertaineko ikasleak hasi ziren 2015-2016 ikasturtean. Iturmendiko Arrano Beltza eskola berrirako bizikletak aparkatzeko hiri-altzaria egin zuten. Baina horretarako, lehenik, iturmendiarrekin elkartu behar izan zuten, haien eskaerak eta nahiak entzun, lana egin ahal izateko. Horrela, ikasitakoa praktikatzeari aparte, ikasleek beste gaitasun batzuk landu zituzten: ekimena izatea, talde lana eta adierazkortasuna. Hain zuzen, halakoak dira enpresek langileei eskatzen dizkietenak.

## Bultzada

Lehen esperientzia hura positiboa izan zen eta institutu guztia ikasketa-zerbitzu proiektuaren



Ikasleak, burdina nola tolesten den ikasten. UTZITAKOIA

barruan sartzea erabaki zuten. Hezkuntza Departamentuan euren asmoa aurkeztu eta onartua izan zen. Horrela, praktiketan erabiltzeko materiala lortu dute eta ikasketa-zerbitzuaren bidez komunitatearendako "gauzak txikiak" eginez segitu dute.

Berta De Pablo irakasleak azaldu digunez, ikasturte honetan ere dinamika berarekin segitzen dute. LHko soldadurako 2. mailako ikasleak joan den urtean Altsasuko ikastetxe guztiengana zuzendu ziren eta hiri-altzarien premia zuten edo ez galdetu zieten. Haiek soldadura praktikak komunitateari zerbitzua eskaintzeko erabiliko zutela azaldu zuten. Lan poltsa bat lortu zuten eta Altsasuko Zelandi eskolarako lorategi bertikal bat egiten hasi ziren. Aurreko ikasturtean hasitako lanak honakoan despedituko dituzte. Beste eskolekin, Altsasu institutuarekin eta Josefina Arregi klinikarekin harremanetan daude. Gainera, Sakana LH instituturako mahaiak, internet sare eta argiteria berritu dituzte. De Pablok gaineratu duenez, sariko dirua "modu berean lanean segitzeko erabiltzeko, gainontzekoei

zerbitzua ematen segitzeko" erabili nahiko luke.

Baina soldadurako ikasleek aparte mendi ertaineko gida gradu ertaineko, industria-mekatronika goi-gradu eta Oinarrizko LHko merkataritza zerbitzuko ikasleek ere ikasketa-zerbitzua praktikan jarri dute. Azken horiek, esaterako, institutuaren barruan taberna bat antolatu dute eta ogitartekoak eta hainbat produktu salduz ikastetxean gabezia bati erantzuna eman zioten, tabernak eta ikastetxetik urrun baitaude. Mendi ertaineko graduiko ikasleek Oinarrizko LHko ikasleendako ginkana antolatu zuten basoan eta aste bateko iraupena izan zuen jardueraren.

## Berdintasun plana

Sakana LH institutuak hezkidetzaren jarduerak antolatzen ditu Emakumeen Egunerako eta Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunean. Aurten, gainera, Hezkuntza Departamentuak Berdintasun Plana ezartzeko 17 ikastetxe pilotuetako bat izateko aukeratu du. Departamentuaren asmoa da halako planak sare guztira 2018an zabaltea.



Maiatzean Altsasun antolatutako mintzodromoa. ARTXIBOA

## Euskara praktikatzeko mintzakide taldeak sortu dira

Irurtzunen, Arbizon, Urdiainen, Altsasun eta Ziordian sortu dira oraingoz, gehiago sor litezke oraindik

## SAKANA

Sakanako mintzakide taldeak hasi dira elkartzeko. Talde txikiak dira eta haietan euskara praktikatu nahi dutenak elkartzeko dira. Batzuk euskara ikasleak dira, mihia askatu nahi dutenak. Besteak mihian herdoila hartutakoak eta hitz-jarioa berreskuratu nahi dutenak. Taldeetan euskara gehiago dakiten pertsona bat egoten da, elkarriketa biziak izateaz arduratzen dena.

Elkartu eta nahi dutena egiten dute: mahaiaren bueltan hitz egin, kafea hartu, paseatu, zinemara joan... Euskara prakti-

katu nahi dutenek sortutako talderen batean sartzeko aukera dute. Bestela, izena eman eta talde berria sortzeko aukera egon liteke. Horretarako, 600 482 024 telefonora hots egin, sakana\_mintza@ae.k.eus e-postara idatzi edo Facebook-eko Sakanako Mintzakideak profilaren bidez harremanetan jarri. Gainera, www.sakanamintza.blogspot.com bloga kontsultatu dezakezu. Informazio gehiagorako Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzura edota AEK-ren Itsasi euskaltegira jo. Mintzakide programa doakoa da.

## Mintzakide taldeak

Herria	Eguna	Ordua	Tokia
Irurtzun	Astelehena	09:00	Pikuxar
	Ostirala	17:00	Pikuxar
		Arratsaldean	Iratxo elkartean*
Arbizu	Asteazkena	17:30	Liburutegia
Urdiain	Asteazkena	19:30	Liburutegia
Altsasu	Astelehena	16:00	Koxka taberna
		09:00	Kaixo taberna
Ziordia	Asteartea	16:00	Liburutegia

\*Azaroan hasteko.



Emakumezkoetan, Aitana Gilek eta Izaskun Beunzak batera egin zuten lasterketako erdia baino gehiago.

Larunbatean giro polita zegoen Uharteko Arakilgo plazan. “Ongi etorri errefuxiatuak” leloarekin Sakanako Mankomunitateak antolatutako XVII. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesara Sari Nagusia lasterketa jokatzekoa zen. Lasterketa antolatzeko Mankomunitateak Uharteko Udaren, Nafarroako Gobernuaren, Aralar Mendi elkartearen eta hainbat babesleren laguntza izan zuen. Arratsaldeko 17:00etan kategoria txikiko probak jokatu ziren, eta 18:00etan, berriz, Sakanako Herri Lasterketa. Proba Sakanako XIV. Atletismo Kopala-Sari Nagusia Sarirako baliagarria zen.

Aralar Mendi elkarteak 4 km-ko zirkuitu ederra prestatu zuten. Plazatik atera, Itxesiraino igo eta handik Katanga auzoraino jaisten zena, “Camino Viejo” delakotik Mendikoa kalera iritsi eta herri gunean bira bat ematen zuena. Kadeteek buelta bat eta juniorrek, seniorrek eta betaranoek, aldiz, bi buelta (8 km) ziztuzten aurretik. 91 korrikalarik hartu zuten irteera eta 75ek lortu zuten proba despeditzea, 38 sakandarrek tartean.

#### Lasterketa mugitua

Lasterketa oso mugitua izan zen, eta azken unera arte ez zen erabaki. Irungo Victor Madejón izan zen azkarrena (26:55), Daniel Martinez iruindarrari 4 segundo eta Jon Otermin urretxuarrari 17 segundo atera eta gero. Sergio

# Madejón eta Gil lehenak Uhartean

**ATLETISMOA** Larunbatean Uharteko Arakilen jokatuak XVII. Sakanako Herri Lasterketan Sergio Garcia de Eulate eta Izaskun Beunza izan ziren lehen sakandarrak. Arratsalde politan, lasterketarekin batera, Ongi Etorri Errefuxiatuak Martxa burutu zen

Garcia de Eulate laugarrena sartu zen, 28 segundora. Altsasuarra lehen sakandarra izan zen.

“Azken metroan erabaki da lasterketa, azkenera arte Martineze eta Oterminekin batera ibili baikara, baina, azken metroan eraso jo eta irabaztea lortu dut” aipatu zuen, helmugan, Sakanako Herri Lasterketan estreinatu zen 46 urteko irundarra. “Proba nahiko gogorra egin zait, oso gorabeheratsua baitzen, hasi eta Itxesiraino bitarteko ia km batetako igoera horrekin” gaineratu zuen Herrera, Astigarraga eta

Egia bezalako herri lasterketak irabazi dituen korrikalariak.

Emakumezkoetan probaren eremu handi batean batera ibili ziren Izaskun Beunza olaztiarra eta Cabanillaseko Aitana Gil, baina Itxesiko bigarren igoeran bere burua ongi ikusi zuen Gilek, eta Beunzak ezin izan zuen Gilen erritmoa eutsi eta 800 eta 1.500 metroan espezialista den Gilek irabazi zuen Sakanako Herri Lasterketa (31:48). Izaskun Beunza minutu pasara sartu zen (32:39) eta Pasaia Ana Cruz sartu zen hirugarrena (33:03).

#### Sari ugari

Sariketaren bertako produktuak banatu ziren, Mendinueta harategiaren eta Uharteko gazta ekologikoaren eskutik. Halaber, parte hartzaileen artean Lacturaleren esne kutzak, Peio Goikoetxea

masajistaren hiru masaje, Mendikoa kafetegian bi pertsonendako afaria eta arkumea (Motxale) zozketatu ziren. Halaber, Errefuxiatuen Aldeko Martxan parte hartu zuten artean bi

## Lehen sakandarrak

**Lehen sakandarrak:** Izaskun Beunza eta Sergio Garcia de Eulate

**Bigarrenak:** Ginesa Lopez eta Alberto Martinez

**Hirugarrenak:** Leire Palacios eta Raul Audikana

**Lehen uhartearrak:** Edurne Irañeta eta Eneko Cruz.

## Sakandarrak Herri Lasterketan

### Gizonak

1. Victor Madejón (Irun):	26:55
4. Sergio Garcia (Alts):	27:23
5. Alberto Martinez (Lak):	27:37
6. Raul Audikana (Olaz):	27:59
7. Javier Borrega (Alts):	28:13
8. Iraitz Senar (Lak):	28:21
11. Adur Senar (Lak):	28:39
12. Juan C. Gomez (Alts):	28:42
13. Iban Sobredo (Alts):	28:45
14. Fco. Jav. Gomez (Alts):	28:51
16. Aritz Pellejero (Lak):	29:15
17. Asier Pellejero (Lak):	29:18
19. Alfr. Larraburu (Irun):	29:23
20. Iñaki Alvaro (Alts):	29:58
21. Gorka Garcia (Alts):	30:00
23. Javi Casanz (Alts):	30:32
27. Asier Usabiaga (Etx):	31:27
28. Jokin Bereziarte (Alts):	31:47
30. Mikel Iriarte (Arb):	31:49
31. Eneko Cruz (Uhar):	32:08
34. Ekain Alegre (Alts):	32:43
35. Jose A. Maiza (Uhar):	32:45
36. Urko Gorriti (Uhar):	32:58
39. Urko Rekalde (Lak):	34:22
43. Jose M. Irañeta (Uhar):	35:04
46. Juanxo Azurm. (Alts):	35:05
49. Aingeru Azazeta (Alts):	35:36
50. Santi Agirre (Iturm):	35:37
56. Daniel Alvarez (Uhar):	37:43
59. Ander Marin (Uhar):	38:03
60. Ismael L. de Goik. (Alts):	38:34
66. Iñigo Orella (Etx):	40:27
70. Mikel Irañeta (Uhar):	43:30
74. Koldo Goñi (Etx):	47:57

### Emakumeak

29. Aitana Gil (Cabanillas):	31:48
33. Izaskun Beunza (Olaz):	32:39
41. Ginesa Lopez (Alts):	34:36
42. Leire Palacios (Alts):	34:36
44. Leire Estarriaga (Etx):	35:05
53. Leire Maiza (Etx):	36:12
67. Erkuden S. Martin (Etx):	40:27
71. Edurne Irañeta (Uhar):	43:30
75. Nora Goñi Beltza (Etx):	47:58

### Kadeteak

Ainhoa Agirre eta Victor Miranda

### Jubenilak

Leire Maiza eta Ekain Alegre

### Betaranoak:

**35-49 urte:** Ana Cruz eta Victor Madejón

**50-59 urte:** Angela Gonzalez eta Fco Javier Gomez

**60 urtetik gora:** Emiliano Martin (emakumezko ez)

kamiseta zozketatu ziren. Eta indarrak berreskuratzen, ohiko auzateaz gain, Siriako jakiak -falafel eta beste- eta Marokoko tea, haragia eta gozoak dastatu ahal izan zituzten.

### Errefuxiatuak gogoan

Atletismoa bulkatzen eta Sakanako herriak ezagutarazteko antolatzen da Sakanako Herri Lasterketa, baina aurten berez kirol ekintza den honek eduki soziala izan zuen. Izan ere, Mank-eko Kirol Zerbitzuak eta Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak antolatu zuten lasterketa, "Ongi etorri errefuxiatuak" lelopean.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuko teknikari Bego Zestauk adierazi zigunez, "lasterketarekin batera errefuxiatuen eta etorkinen gaia jorratu nahi izan ditugu, Mankomunitatean ere eurekin lan egiten baitugu. Lasterketa hasi baino lehen, Maksim Magoak ikuskizun polita egin du haurrendako, eta arratsalde guztian barna Sakanan errefuxiatuen gaia lantzeko aurten sortu den Sakana Harrera Harana taldearen eta Larrialdi Humanitarioetarako Nafarroako Suhiltzaile Bolondresen HELP-NA taldearen inguruko informazioa jarri ditugu stand batean. Talde hauek errefuxiatu eremuetan eta hemen egiten duten lana erakutsiko dugu. Milaka pertsonen bizi duten egoera latzaren berri eman nahi dugu". Eta lasterketa abiatu eta bi minutuetara Errefuxiatuen Aldeko Martxa abiatu zen, "Ongi etorri errefuxiatuak" lelopean. Oinezko martxan parte hartu zutenek, lasterketako zirkuituari buelta bat eman zioten, 4 km guztira. Hogeiren bat pertsona animatu ziren buelta egitera.

### Auzate berezia

Horretaz gain, lasterketa bukatzerakoan, ohiko auzateaz gain, Abdul Razak Alyusuf errefuxiatu siriarrak prestatutako jakiak eta Abderrahim Khelifi marokorak prestatutako marokorak jakiak dastatzeko aukera izan zen Uharte Arakilgo plazan, arrakasta handia izan zuena, eta Uharte Arakilgo tabernatan pintxo pote berezia izan zen; pintxo potetik jasotakoa errefuxiatu eta etorkinekin lan egiten duten HELP-NA eta Sakana Harrera Harana taldeei bideratu zitzaizkien.

## Sakanako Herri Lasterketak utzitakoak



Eguraldia lagun, euria ez baina airea bidaide izan zuten korrikalariek.

**Irteera:** Sakanako Herri Lasterketan, proba nagusian, 91 korrikalarik hartu zuten irteera eta 75 iritsi ziren helmugara.



Txalo artean ibili ziren korrikalariek.

**Kadeteak:** Kadete mailako korrikalariek zirkuituari buelta bat eman behar izan zioten (4 km).



Gazteek eta beterranoek, denek izan zuten tokia.

**Zaleen babesa:** Uharte Arakilen bildutakoen txaloak eta animoak jaso zituzten korrikalariek.



Errefuxiatuen kanpamenduen itxura hartu zuen Uharte Arakilgo plazak.

**Errefuxiatuen errealitatea ezagutzeko aukera:** Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak errefuxiatuen informazioa zabaldu zuen.



Emakumezkoetan, Aitana Gilek eta Izaskun Beunzak batera egin zuten lasterketako erdia baino gehiago.

## Arbizun hasi zen Nafarroako Sokatira Txapelketa

**SOKATIRA** Igandean hasi zen txapelketa, Arbizun. Azaroaren 11n Lakuntzara iritsiko da txapelketa

Guztira, Nafarroako Sokatira Txapelketako lau jardunaldi jokatu dira. Gizonezkoak bi pisutan lehiatzen ari dira, zortziko taldeetan. Emakumezkoetan, berriz, seiko taldeak izanen dira eta pisu bakarrean lehiatzen ari dira. Horretaz gain, talde mistoak ere pisu bakarrean lehiatuko dira eta zortziko taldeak izanen dira, lau gizonezko eta lau emakumezko.

Gizonezkoetan, 640 kiloko txapelketa jokatu da (2 jardunaldi, liga sistema bidez), eta 600 kiloko txapelketa (2 jardunaldi, liga sistema bidez). Talde mistoen 550 kiloko txapelketan bi jardunaldi jokatu dira, liga sistema bidez, eta emakumezkoen 375 kiloko txapelketan 2 jardunaldi jokatu dira, liga sistema bidez.

### Beti Gazte eta Txantrea onenak Arbizon

Esan bezala, igande eguerdian hasi zen txapelketa, Arbizuko kiroldegian. Zehazki, gizonezkoen 640 Kiloko Txapelketako lehen jardunaldia eta Emakumezkoen 375 kiloko Txapelketako lehen jardunaldia jokatu ziren. Gizonezkoen txapelketan, Beti Gazte izan zen onena (3 puntu), Berriozarren (2 puntu) eta Antsoainen aurretik (puntu 1). Emakumezkoetan, aldiz, Txantrea gailendu zen (4 puntu), Berriozarrek eta Beti Gaztek berdindu egin zuten (2,5 puntu) eta Antsoain azkena sailkatu zen (puntu 1). Aipatu txapelketak larunbatean erabakiko dira, Berriozarreko pilotaleku berrian, 17:00etan.

### Azaroaren 11n Lakuntzan

Azaroaren 11n, 12:00etan, Lakuntzako Pertzak antolatutako bazkide egunaren barruan Nafarroako Sokatira Txapelketaz gozatzeko aukera izango da Behar-Zana pilotalekuan.

# Joseba Ezkurdia Lau t'erditik kanpo

**PILOTA** Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkako 3. jardunaldi erabakigarrian, Altunak 13 eta 22 irabazi zion eta txapelketan aurrera egiteko aukerarik gabe utzi zuen arbizuarra. Urrutikoetxeak, Altunak, Bengoetxea VI.ak eta Olaizolak egin dute aurrera

Lau t'erdiko Txapelketan finalerdietara nor sailkatu, hori zegoen jokoan asteburu honetan. Joseba Ezkurdiak eta Jokin Altunak final kutsuko partida zuten, irabazleak finalerdietarako txartela lortuko baitzuen.

Ikusmina handia zen Beotibarren eta aipatu behar da ongi hasi zirela gauzak arbizuarrarendako. Lehen tantoa ateratzea egokitu zitzaion eta bere saketalei esker 6 eta 1 aurreratu zen. Une horietan gaizki zebilen Altuna, txispa eta magiarik gabe, baina gipuzkoarrak ongi erantzuten jakin zuen. Ezkurdiak akatsa egin eta gipuzkoarrak bigarren tantoa lortu eta gero, gantxoarekin mina egiten hasi zen Altuna eta 12 tanto egin zituen segidan, 6 eta 13 aurreratuz. Ezkurdiak behera egin zuen akatsa egin eta gero, eta arbizuarra partidatik atera zuen Altunak. Artista bikaina da gipuzkoarra, eta Ezkurdia baino gehiago izan zen, alor guztietan.



Joseba Ezkurdia. IÑAKI PORTO

Norabiderik gabe ibili zen arbizuarra, bere fisiko pribilegiatu horri zukua atera ezin, eta egoerari buelta ematen jakin gabe. 13 eta 16 hurbildu zen Ezkurdia, baina amezketarra zuzenean joan zen garaipenaren bila.

Azkenean, 13 eta 22 irabazita, Lau t'erdiko txapelketako finalerdietarako sailkatu zen Altuna. Joseba Ezkurdiak, kontrako egoerari buelta emateko gaitasun falta izan zuen, eta beste behin, atean geratzearen sentsazio horrekin geratu behar izan zuen.

Lau t'erdiko finalerdietan, Altunak Aimar Olaizola izango du aurkari bihar Labriten, eta Bengoetxea VI.ak Mikel Urrutikoetxearen kontra jokatu du igandean Adarragan.

### Nafarroako Gazte Mailako Lau t'erdiko txapelketa

Nafarroako Gazteen mailako Lau T'erdiko Txapelketa-Guillermo Mazo Memorialean, asteazkenean Gure Pilotako Antotegik 15 eta 18 irabazi zion Villanuevari eta Cuairánek 18 eta 2 hartu zuen menpean Aldebideko Lima. Atzo Gure Pilotako A.Arañak Arizaleta zuen aurkari, Otxoak Galartza eta I. Arañak Oskoz.

## Iñigo Aritza Pilota Txapelketa aurrera

**PILOTA** Igandean, 16:00etan, 3. jardunaldia jokatu da ikastolako frontoian

XX. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketak aurrera darrai. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailara bitarteko neska-mutilek parte hartzen dute txapelketan eta igandean 3. jardunaldia jokatu da ikastolako frontoian, 16:00etan.

## Iñigo Aritza Txapelketako 3. jardunaldia

**Igandean, 16:00etan, Iñigo Aritza ikastolako frontoian:**

### LH3:

Harri – Kimetz  
Urko – Aratz

### LH4:

Inhar – Alejandro  
Asier – Mikel

### LH5:

Uxue – Haizea  
June – Siets  
Enaitz – Aimar  
Oier – Xabier

### LH6:

Oihan – Alain

### DBH1:

Harri – Hegoi

### DBH2:

Irati – Amaiur  
Ander – Olatz  
Aimar – Araitz  
Ion – Oihan

### DBH3:

Aitor – Ekhi  
Inar – Juanes



BARRANKA TXIRRINDULARITZA TALDEA

## Erriberako txokoetan barna

**MENDI TXIRRINDULARITZA-BTT** Sakanako Mankomunitateak eta Barranka Txirrindularitza Taldeak BTT ibilbide polita antolatu zuten igandean Erriberan. Zehazki, Arga eta Aragoi ibaiak elkartzen diren ibaiertzetik buelta polita egitea zen asmoa.

Eguraldia lagun, Alesbes-Villafranca, Martzilla, Azkoi, Milagro, Faltzes eta Funes artean 52 km-ko ibilbide ederra egin zuten Sakanako txirrindulariek. Bertan bazkaldu ondoren, arratsaldean hartu zuten etxerako bidea.





Burunda Txirrindularitza Taldearen 2017 denboraldiko aurkezpeneko argazkia, lortia parean. ARTXIBOA

# Burundarendako, denboraldia ona

**TXIRRINDULARITZA** Bukatu berri dena "urte ona" izan dela azaldu digu Burunda klubeko idazkari Gorka Mintegik. Azaroaren 24an batzarra izanen du Burunda klubak eta ondoren 2018ko denboraldia prestatzen hasiko dira

Urriaren hasieran despeditu zen 2017ko txirrindularitza denboraldia eta Burunda Txirrindularitza Klubeko idazkariarekin, Gorka Mintegirekin bildu gara balorazioa egiteko. "Urte ona izan da hau. Neska-mutilak gustura ibili dira eta hori da garrantzitsuena: txirrindularitzan trebatu daitezela, lagunak egin ditzatela eta txirrindularitzaren diziplina barneratu dezatela, txirrindularitza oso kirol sakrifikatua baita" nabarmendu du.

Burunda Klubean 41 txirrindulari izan dituzte eskoletan, 4 kadete mailan eta 7 juniorretan. "Zerbakiere erreparratuz, aurten 4 kadete genituen. Horrek erakusten du kadete hauek txikiak zirenean txirrindularitzak beharaldia izan zuela. Baina egun, 41 txirrindulari ditugu eskolan; egun, osasun ona du txirrindularitzak" azaldu digu Mintegik.

## Eskoletakoek 32 proba

Eskola mailan apirila eta iraila bitartean 32 lasterketa izan dituzte. Burundako 40 txirrindulari horietatik 5 emakumezkoak dira. "Nafar Kirol Jolasetan aurrean egon gara; ginkanan eta lasterketetan ere lehen postuak eta podium asko ditugu. Hori positiboa da, baina guri interesatzen zaiguna neska-mutiloak gustura aritzea da. Ilusio asko izaten dute eta hori da garrantzitsuena. Aurten, klub bakoitzak erabakitzen zuen sariak eman ala ez. Guk antolatutako 5 lasterketetan sariak eman

## TXIRRINDULARIAK GUSTURA EGOTEA, LAGUNAK EGITEA ETA DIZIPLINA BARNERA DEZATELA DA KOXKA

ditugu, txirrindulariei ilusioa pizten dielako eta babesleendako ere interesgarria delako podiumeko argazki hori" aipatu du Mintegik. Halaber, gaineratu du haurren mailako Hugo Aznar eta Nahia Imaz Espainiako Txapelketetan aritu direla.

## Kadeteetan sakandarrak jaun eta jabe

Kadete mailan Nafarroako lasterketetako protagonistak talde sakandarrak izan dira, Burunda eta Aralar taldeak. "Sakanako bi taldeek dena jan dute. Aralar Igor Arrietak garaipen asko pilatu ditu, eta sakandarrak izan ditugu, uda osoan, podiumaren goialdean. 35 lasterketa jokatu dituzte eta Burundakoek 4 lasterketa irabazi ditugu. Unai Aznarrek Nafarroako erlojupekoa irabazi zuen eta Arabako Itzulian garaipen bat izan zuen

eta Txuma Itzulian Iker Mintegik garaipena lortu zuen, tartean. Bestalde, Espainiako Txapelketetan Unai Aznar Nafarroako selekzioarekin aritu zen eta Jonathan Felix Vega Errioxakoarekin" azaldu digu Mintegik, kadeteen lanarekin kontentu daudela gaineratuz.

Juniorrek, bestalde, 42 lasterketa izan zituzten eta bi itzulitan lehiatu ziren. Koxka handia da hau, beste maila bat. "Asteburu gogorak dituzte juniorrek, askotan bi lasterketekin. Ailetz Lasak garaipena lortu zuen Tafallan eta gure hiru txirrindulari Espainiako Txapelketetan lehiatu ziren, Ailetz Lasa Nafarroako selekzioarekin eta Juan Riaño eta Dani Izquierdo Errioxakoan" aipatu du Burundako idazkariak.

## Azaroaren 24an batzarra eta 25ean bazkaria

Burunda Txirrindularitza Klubak azaroaren 24an urteko batzarra egingo du. 200 bazkide inguru ditu taldeak. Aurten eskoletako 5 lasterketa (Ziordian, Olaztin, Altsasun, Urdiainen eta Iturmendin) eta kadeteen eta juniorren mailako proba bana antolatu zituzten Altsasun. Babesle berberekin jarraitzen dute aurrera eta Altsasuko udalarekin hitzarmena eta Burundako gainontzeko udalen laguntza dute. Batzarrean urteko errepaso egingo dute, txirrindulariei oroigarriak eta dominak banatuko dizkiete eta hurrengo egunean, azaroaren 25ean, Urdiainen bilduko dira bazkaltzera. "Eta ondoren 2018 denboraldia prestatzen hasiko gara. Kadeteak eta juniorrak ilbeltzean hasiko dira entrenatzen eta eskolakoak martxoan edo apirilean. Norbaitek Burundan txirrindulari aritu nahi badu, ccburundatxe@gmail.com postara idatzi dezala eta gurekin jar dadila harremanetan. Ildo honetan, taldean bizikletak ditugu, izena ematen dutenei hasiera batean uzteko; beraz, txirrindularitzan aritzeko ez dago aitzakiarik" nabarmendu du Mintegik.

## KADETE MAILAN TXIRRINDULARI SAKANDARRAK IZAN DIRA NAGUSI 2017KO DENBORALDIAN

## Burunda Txirrindularitza Kluba 2017

### Eskolak (41)

- **Promesak (14):** Xabier Curiel Peña, Izai Igeltz Irizar, Unai Gomez Lopez de Goikoetxea, Asier Flores Agirre, Markel Lizarraga Lopez de Goikoetxea, Alex Gonzalez Juanez, Ion Unai Gonzalez Mañeru, Aitzol Hernaz Iraola, Gabriel Gonzalez Juanez, Eneko Pinto Vicente, Ibai Galarza Zubiria, Ekaitz Zufiaurre Goikoetxea, Joan Lizarraga Senar eta Egoi Urtasun Etxeberria.

- **Hasiberriak (10)** Ekaitz Perez Barrenetxea, Ekiñe Agirre Lopez, June Etxeberria Anton, Maider Ondarra Lopez, Ekain Imaz Perez, Hegoi Garcia Duran, Oihan Arregi Cano, Ohian Hernaz Iraola, Luken Zelaia Ganuza eta Izaro Ramos Santamaria.
- **Kimuak (9):** Ion Aierbe Senar, Iker Begiristain Andueza, Pablo Senosiain Galarza, Iker Gomez Lopez de Goikoetxea, Asier Etxeberria Anton, Mikel Regil Fernandez, Aitor Barandalla Granizo, Mikel Lizarraga Senar eta Oier Agirre Lopez.

- **Haurrak (8):** Julen Guerrero Carrasco, Ander Villalobos Hernaz, Mikel Uncilla Aldasoro, Unax Trevejo Rodriguez, Nahia Imaz Perez, Oihan Etxeberria Anton, Ion Chamorro San Martin eta Hugo Aznar Vijuesa.

**Entrenatzaileak:** Ismael Perez eta Gorka Mintegi.

**Kadeteak (4):** Unai Villalobos Hernaz, Iker Mintegi Claver, Unai Aznar Vijuesa eta Jonathan Felix Vega Barrio.

**Entrenatzaileak:** Ion Irigoien eta Eneko Vilar.

**Juniorrak (7):** Josu Jaka Parrizas, Ailetz Lasa Lizarraga, Mateo Gonzalez Torres, Iñigo Fernandez Martinez, Hodei Zia Lopez, Daniel Izquierdo Saenz-Torres eta Juan Riaño Lopez.

**Entrenatzaileak:** Tomas Martinez Viedma eta Aritz Irigoien Fresneda.

## PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Lagun Artea – San Jorge	0-2
Etxarri Aranatz – Ardoi	0-0

SAILKAPENA	
1. Lagunak	16
14. Lagun Artea	5
16. Etxarri Aranatz	4

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
16:00	Amigó – Etxarri Aranatz <i>Amigón</i>

IGANDEAN	
12:15	Ardoi – Lagun Artea <i>Zizurren</i>

Beste erdipurdiko asteburua preferente mailan dabilizan gure taldeendako. Lakuntzan, Lagun Artea eta San Jorge parez pare ibili ziren, baina zorigaitzoko jokaldian aurreratu egin zen San Jorge, eta azken minututan bigarrena sartu zuen. Bestalde, Etxarri eta Ardoiren arteko lehia, lehen zatian etxeokoa hobeto aritu ziren eta gero Ardoi hobera egin zuen. Baina ez zen golik egon.

## ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Altsasu - Gazte Berriak	2-2

SAILKAPENA	
1. Lagunak B	16
2. Altsasu	13

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
15:30	Pamplona B - Altsasu <i>Iruñan</i>

Partida entrenigarrian, Imanol Martinezek aurreratu zuen Altsasu. Gaztek berehala berdindu zuen eta 2. zatian bigarrena sartu zuten. Lizarragak bina berdintzea lortu zuen.



SARAY

## 12.000 lagunetik gora

**ATLETISMOA** Igandean 12.000 pertsonen baino gehiago hartu zuten parte Saray antolatutako Minbiziaren kontrako VI. Lasterketa Solidarioan. Parte-hartzaileak arrosaz tintatu zituzten Iruñeko kaleak. Lasterketa ez lehiakorra zen, eta, tartean, sakandar ugari aritu ziren. Saraytik oso eskertuta zeuden; jende andana espero zuten, baina ez horrenbestekoa.

## SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUAK	
IGANDEAN 2. JARDUNA DANTZALEKUN	

10:00	Tipi Tapa – Lagun Artea
11:00	Etxarri Aranatz – Sutegi
12:30	Kaixo – Urdiain

Mank-ek Sakanako futbol taldeen laguntzarekin antolatutako 2017/2018 Sakanako Futbol Topaketak martxan daude. Aurreko asteburuan benjaminen mailako Futbol Topaketen lehen jardunaldia jokatu zen eta kimuen mailakoek atsedena jardunaldia zuten.

Asteburu honetan, berriz, kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketen 2. jardunaldia jokatu da Dantzalekun eta benjaminen atsedena hartuko dute.

Jakina denez, Sakanako Futbol Topaketetan ez da lehiakortasuna sustatu nahi eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Kimuen mailan sei talde dabilza topaketetan eta benjaminen mailan, berriz, 9 talde.

## ELOMENDI TXAPELKETA

EMAITZAK	
Unziti – Zaldua	(atzo jokatzekoa)

SAILKAPENA	
1. Bidezarra	13
5. Zaldua	7

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
Ordua zehaztu gabe	Zaldua – Roca

Unzitiren kontrako partida atzo jokatzekoa zuen Zaldua, baina ez dugu emaitzaren berri. Asteburuan sailkapenean 11.a den Rocaren kontra ariko da Zaldua, Lekunberrin.

## Azken bi partidatan puntu bakarra lortu dute berdeek

**ARETO FUTBOLA** Osasuna Magnak aurreko ostiralean hiruna berdindu zuen Aspil Vidalekin, partida bukaeran aldeko penalti zalantzarri bati esker. Asteazkenean denboraldiko lehen porrota jasan zuten berdeek eta gaur Palma Futsal hartuko dute

Osasuna Magnak bikain ekin zion 2017/2018 denboraldiari. Errege Kopan aurrera, garaipenak eta puntuak bata bestearen atzetik... baina azken aste honetan azkenaldiko partida jarraituen zama nabaritu dute berdeek.

Aurreko ostiralean derbi nafarra jokatu zuten Osasuna Magnak eta Aspil-Vidal Ribera de Navarrak Anaitasunan. Berdeak ziren faborito, baina Tuterakoak ez ziren kikildu eta sekulako gogoekin atera ziren kantzara. Aspil-Vidal aurreratu zen eta berdintzea lortu zuen Araçak, baina gol aukera ugari alferrik galtzen utzi zituzten. Aspilek atsedendia baino lehen bigarrena sartu zuen eta berdintzeko saiakera asko egin zituen Osasuna Magnak, baina ez zuen kontrako atean asmatzen. Eseverrik bina berdindu zuen, Aspilek hirugarrena sartu zuen, eta partida bukatzeko 35 segundoren faltan berdeen aldeko



Dani Saldise, Aspil-Vidalen kontra. XOTA

penalti oso zalantzarria seinatu zuen arbitroak, Eseverrik sartu eta hirunako berdinketa ekarri zuena.

Partida lapurtu zietela kexatu ziren Tuterakoak. Imanol Arregik azaldu zuen arbitroak oker

aritu zirela, lehen zatian bi esku eskandalagarri ikusi ez zituztelako. Azkenean, inor kontentutuz ez puntu banaketarekin despeditu zen lehia.

Eta, asteazkenean, Jaenen, denboraldiko lehen porrota jaso zuten Osasuna Magnakoek. Hasieratik dominatu zuen Jaenek. Jaenek 16. minutuan bi gol sartu zituen, eta atsedendia baino lehen hirugarrena. Imanol Arregiren mutilak partidari buelta ematen saiatu ziren, baina Jaenek bi gol sartzea lortu zuen eta 5 eta 0 galduta itzuli ziren etxera nafarrak.

Atzoko emaitzen faltan, Movistar Inter zen lehen mailako liderra (19 puntu) eta Osasuna Magna laugarrena (17 puntu).

## Gaur Palma Futsal

Atsedetik gabe, bihar, ostiralean, Aspil Vidalekin berdintzetik datorren Palma Futsal hartuko du Osasuna Magnak Anaitasunan, 21:15ean (Eurosport).



UTZITAKOIA

## Altsasuk bi garaipen segidan

**FUTBOLA** Emakumeen erregional mailan, larunbatean Altsasuk Beti Kozkor taldea hartu zuen Dantzalekun. Garaipen polita lortu zuten altsasuarrek, 3 eta 1 hartu baitzituzten menpean Lekunberrikoak. Sailkapenean, Berriozar da liderra (21 puntu), Osasuna

bigarrena (19) eta Altsasu 12.a (8 puntu). Aste potoloa da hau, atzo Baztanen kontra aritu baitziren altsasuarrek, eta 0 eta 2 irabazi zuten. Larunbatean, 15:45ean, Osasuna taldea hartuko dute Dantzalekun. Zalantzarik gabe, gorritz markatutako partida.



EGUBERRIETAKO  
GEHIGARRIA  
MARTXAN!

EGUBERRIAK

SAKANAN

Ez galdu aukera!

publi@guaixe.eus  
publizitatea@guaixe.eus  
tel. 948 564 275



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

## OSTEGUNA 2

**ALTSASU Handia** filmaren emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

## OSTIRALA 3

**ALTSASU Pentsioak** berreskuratzeko garaia da, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa kontzentrazioa deitu du Nafarroako Pentsionistak Martxan.  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**ALTSASU. Nafarroa Oinez** dendaren mustutzea. Haurrendako ikuskizuna eta otamena izanen dira.  
18:00etan, Eguberakaleko 2an.

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia** toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.  
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**ALTSASU Altsasukoak** aske kontzentrazioa.  
19:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU Agustin Gonzalez Aziluren Arrano Beltza** interpretatuko du Iruñeko Ganbera Abesbatzak.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Palestina, Al-Khalil, mamu hiria** hitzaldia eta argazki emanaldia egingen dute Jaime Gelabert eta Jose Mari Morcillok, Sakanako Mintzakideak antolatuta.  
20:00etan, Itsasi euskaltegian.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira** kontzentrazioak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Kiki, el amor se hace** filmaren emanaldia eta foruma Bel Pozueta sexologoarekin, Gozamenez kanpainaren barruan.  
21:45etan, lortia kultur gunean.

**ETXARRI ARANATZ Ondoko hilobiko tipoa** antzezlana eskainiko du Txalo produkzioak-ek.  
22:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Handia** filmaren emanaldia.  
22:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Manolo Kabezabolo y los ke no dan pie** kon bolok kontzertua emanen dute.  
23:00etan, gaztetxean.

## LARUNBATA 4

**ALTSASU Asanblada irekia** deitu du Ospia mugimenduak.  
10:30etan, Gure Etxea eraikinean.

**UHARTE ARAKIL Gerra** Zibilean eraildako Victor Martiarena Alegirari azken agurra.  
11:30etan harrera seme-alaben plazan. 12:00etan ehorzketa hilerrian.

**ALTSASU Haize Berriak** bandaren, Naiara Ijurko eta Eduardo Canto bakarlarien Musikaren bidetik kontzertuaren entsegu orokorra.  
13:00eta, lortia kultur gunean.

**URDIAN Bernoako** galtzadara ibilbidea antolatu du Urdiaingo Gurasoen Euskara Batzordeak. Aurretik liburutegian izena eman.  
15:30etan, Urriztin.

**ETXARRI ARANATZ Magia lapurra** haurrendako ikuskizuna eskainiko du Txalo produkzioak-ek.  
17:30etan, kultur etxean.



**ALTSASU Musikaren bidetik** kontzertua eskainiko du Haize Berriak bandak Naiara Ijurko eta Eduardo Canto bakarlariarekin.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**LAKUNTZA Zer gertatzen da Katalunian?** Galdera horri erantzuteko solasaldia antolatu du Haizea elkarteak eta Barberako CUPeko Fabia Diaz-Cortes zinegotzia gonbidatu du.  
18:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU Ferietako argazki** lehiaketako sari banaketa antolatu du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**IRURTZUN Maite Itoizek** eta John Kellyk kontzertua eskainiko dute Folk Ametsetan zikloaren barruan.  
20:00etan, kultur etxean.

## IGANDEA 5

**ALTSASU Altsasutik San Lorenzo** ermitara 50 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.  
09:00etan klubeko bajeratik, 9:45etan Bioitza kanpinean.

**IRURTZUN Bigarren eskuko azoka** antolatu du Itxipuru taldeak Sakana Harrera Haranaren alde.  
10:00etatik 14:00etara, plazan.

**UHARTE ARAKIL Ziza** erakusketa. Egunean zehar, Donibane jubilatuta elkartean.

**ALTSASU Gatos, un viaje de vuelta a casa** filmaren emanaldia.  
17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Kiki, el amor se hace** filmaren emanaldia.  
17:30etan eta 19:40etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Handia** filmaren emanaldia.  
19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira** kontzentrazioa.  
20:00etan, Foru plazan.

## ASTELEHENA 6

**ALTSASU El acorazado Potemkin** filmaren emanaldia Errusiako iraultzaren 100. urteurrena dela eta.  
19:00etan, gaztetxean.

## ASTEARTEA 7

**ETXARRI ARANATZ Sakana dastatzen, sukaldaritza osasungarria** bertako produktuekin antolatu du Sakanako Garapen Agentziak. Aurretik izenak eman.  
18:00etan, Xalok.

**ALTSASU 100. urteurrenien iraultza sobietarran irakaspernak** hitzaldia emanen du Iñaki Etaio, lortia kultur gunean.

## ALTSASU

**32. Altsasuko ferietako argazki rallya.** Altsasuko Mendigoizaleak taldearen erakusketa, non lehiaketara aurkeztutako argazkiak erakusten diren.  
Azaroaren 3tik 11ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur gunean.

**Askapenako kideak.**  
19:30etan, gaztetxean.

## ASTEAZKENA 8

**LIZARRAGA Energia** sentsibilizazioa jardunaldia antolatu du Nafarroako Gobernuak Sakanako Garapen jardunaldiarekin.  
17:00etatik 20:00etara, kontzeju-etxean.

## OSTEGUNA 9

**ALTSASU La llamada** filmaren emanaldia.  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Errusiako urriko iraultzaren irakaspernak gaurko egunetarako mahai-ingurua.** Altsasuko prestakuntza taldea.  
19:30etan, gaztetxean.

## ZORION AGURRAK



Ibai Galarza Zubiria Zorionak potxolo!! 8 urte!! Primeran pasa zure egunean eta muxu asko zure familiaren partetik.



## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

**Lizarragako Azi Iturri Txokoa elkartea San Klemente jaietarako (azaroaren 17tik 19a) elkartea alokatuko da.** Enkantea azaroaren 5ean eguerdiko 13:00etan izango da. Gutxienez 600 euro.

## OHARRAK

**Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu,** lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://go-teo.org/project/zu-ga-be-ezin>

**Katalaneko mintzataldea.** Katalanez ikasi eta edo hitz egiteko interesa duzu? Sakanan mintzataldea sortu nahi dugu. Jarri harremanetan gurekin (629 486 123 Monika-Arbizu)

**Etxarri Aranazko irakurle taldea.** Hurrengo hitzordua: abenduaren 14an izanen da, ostegunean, 19:00etan libururtegiaren. Mari Luz Estebanen Feminismoa eta politikaren eraldaketak liburua ariko dira hizketan.

**Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresarien Elkartea langabeei eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Euskonews ekonomiki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza), [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943 32 22 94

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerak sondotzea. Argi-

bide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**GoiEner Iruñean.** Landa-erak utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Volkswageneko langileendako deia.** Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

**Euskaldun bat euro bat.** Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunen zat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa [www.euskaldunbateurobat.com](http://www.euskaldunbateurobat.com)

**Gazteei jarritako isunak ordaintzeko.** Euskal preso eta iheslariek aldeko abenduaren 30 egi emenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute.

Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

**Auzolana Josefina Arregui Kliniketan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikak) edo 689 03 51 02 (Pabx) telefonoetara hots egin dezate

**Josefina Arregui Klinika bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com)

**Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia.** Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak [nafarroakoeuskalkantu@gmail.com](mailto:nafarroakoeuskalkantu@gmail.com) edo [amado-minguez@tafallaika.stola.org](mailto:amado-minguez@tafallaika.stola.org) e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

**Idazlearekin hizketan. Kirmen Uribe idazlea azaroaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean izanen da.** Arbizu, Etxarri Aranatz, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko liburutegiek antolatuta eta Liburutegi Zerbitzuak natorlatuta.

**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770. [www.iragarkilaburak.com](http://www.iragarkilaburak.com)

## JAIOTZAK

• **Hegoi Alustiza Imaz,** azaroaren 1ean Altsasun

## EZKONTZAK

• **Javier Rodriguez Astiz eta Encarni Sanchez Muguruza,** urriaren 31n Uharte Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.




## ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo [eskela@guaixe.eus](mailto:eskela@guaixe.eus)

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €, prezio hauek BEZa barne dute. ► Bazkideek % 10eko deskontua dute. ► Eskalak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.


## EGURALDIA ASTEBURUAN

## Osteguna, 2



Hegoaldeko haizea zakar xamar ibiliko da, tenperatura epelekin. Goizeko lainoak desegiten joango dira, eguna aurrera joan ahala.

## Ostirala, 3



Egun nahasia izango dugu gurean. Zaparradak botako ditu han hemenka, baina eguzkiaren goxotasuna ere sentituko dugu.

## Larunbata, 4



Zaparradak ugarituz joango dira eguerditik aurrera. Egun bustia izango dugu, baina epel mantenduko dira tenperaturak.

## Igandea, 5



Igandea hotza ekarriko du gure lurraldera. Egun guztian zehar euria izango dugu, eta ondorioz, egun desatesegina izango da.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

[IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS](mailto:IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS)

[WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK](http://WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK)

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

40 tanatorios  
IRACHE  
aniversario  
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Gruporache

Gruporache

[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Haize Berriak bandak urte hasieran Flamenko etxea kontzertua eman zuenekoak. ARTXIBOA

# Bakarlarien laguntzaz obra mustuko du bandak

Oskar Mussoren lan bat mustuko du Haize Berriak bandak larunbatean. Eta aurretik jo ez dituen beste bi obra interpretatuko ditu Naiara Ijurko piano-jole uhartearrekin eta Eduardo Canto biolin-jole mexikarrarekin batera

## ALTSASU

Haize Berriak bandak aurten 20 urte bete ditu. Bere ibilbidean Sakanako bandak musika sorkuntza buruan izan du eta hainbako konposatzailearen lanak mustu ditu. Horren beste adibide bat eskainiko du bihar *Musikaren bidetik* kontzertuarekin. Izan ere, *Rincones de Sevilla* obra mustuko du Haize Berriak bandak. Oskar Musso konposatzailearen biolin, piano eta bandarako lana da. Sakanako bandako 36 musikariek Naiara Ijurko (pianoa) eta Eduardo Canto (biolina) bakarlarien laguntza izanen dute larunbateko emanaldian.

Luis Orduña zuzendariak azaldu duenez, obra bi ataletan banatzen da. Melodiagatik eta erritmoagatik andaluziar ukitu nabarmena duten temak ageri dira bietan, Sevillako Joaquin Turina konposatzaileari omenaldi egiteko haren musika hizkuntzara hurbilduz. Tema diren doinuak inprobisazio kutsua

duten beste pasarteekin kontrastea egiten dute. Obran jasotako temak konposatzaileak Sevillan bizi izandako sentipenak islatu nahi dute.

## Bi berri

Ijurko eta Canto bakarlariak aldamenen dituela baliatuta, Haize Berriak bandak bere errepertorioa zabaltzeko baliatuko du eta aurretik sekula jo ez dituen bi obra joko ditu: Pablo Sarasateren *Fantasia Carmen* eta George Gershwinen *Rhapsody in blue*. Aurrenekoari dagokionez, Georges Bizetek 1875ean mustu zuen *Carmen* opera. Baina ez zuen berehalako arrakasta handirik lortuko, geroa baizik. Zortzi urteetara, 1883an, Sarasatek Bizeten pasarteekin osatu zuen fantasia hori. Aurretik sortzaile nafarrak antzeakoak eginak zituen Verdi, Rossini edo Gounoden lanekin. Bigarrenari dagokionez, Gershwinen aurreneko lan sinfonikoa da eta Amerikako Estatu Batue-

tako bertako sinfonia-musikaren sorrera da. Bluesaren, jazzaren eta beltz espiritualen elementuak ditu. Paul Whiteman zuzendariaren enkarguz idatzi zuen, banda eta pianorako.

Kontzertua Joaquin Turinaren *Sonata nº 2 en sol, Op. 82. Sonata Españolak* zabalduko du. Biolinerako sortutako obra da, 1934koa. Sevillako konposatzaileak Parisen jasotako hezkuntza eta Sevilla sorterriko erroak uztartu zituen.

## Konposatzailea

Oskar Mussok Granadako kontserbatorioan konposizio ikasketak egin zituen eta 2006an lortu zuen goi-konposizioa. Tuba espezialitateko titulu profesio-

**ENTZULEAK XX. MENDE HASIERAKO SEVILLATIK GAURKORA MUSIKA BIDAIA EGINEN DU**

nala, Granadako Unibertsitateko Fisika Zientzien lizentziatura eta Madrilgo Juan Karlos Erregea Unibertsitateko Musika Sormen eta Interpretazio masterra ere baditu. Gaur egun Granadako goi-kontserbatorioko musika-analisi irakaslea da, aurretik Kordobako eta Sevillakoan izan da irakasle. Hainbat konposizioren egile, haietako asko mustuak izan dira. Gainera, konposizio sari eskuratu ditu.

## Bakarlariak

Naiara Ijurko piano-joleak eta Eductor Canto biolin-joleak, nor bere sorterria musika ikasketak egin zituen eta haiek zabaltzeko Europako bidea hartzea erabaki zuten. Europan gurutzatu ziren bien ibilbideak. Groningen eta Maastrichten musika ikasketak egin zituzten biek.

Zeinek bere ikasketak despeditu eta bakarlari eta taldekide gisa hainbat proiektutan parte hartu dute, antzoki entzutetsuetan joaz biek. Uhartearra, esaterako, Balear uharteetako musika garaikideko S'ensembleko kide izan zen. Gaur egun gainera musikako interpretea izateaz aparte Bartzelonako Liceu kontserbatorioko irakaslea da.

Elkarrekin Canto-Ijurko bikotea osatzen dute eta Espainian, Belgikan, Frantzia, Mexikon eta Holandan pianorako eta biolinerako kontzertuak eman dituzte. Aurreneko aldia da Sakanan ariko direna.

## Entsegua eta kontzertua

Haize Berriak bandaren, Naiara Ijurkoren eta Eduardo Cantoren kontzertua larunbatean, 19:30ean izanen da, Altsasuko Iortia kultur gunean. Kontzerturako sarrera guztiak saldu egin dira. Emanaldiaren harrera ikusita, Sakanako musika bandak larunbateko 13:00etako entsegu orokorrera sartzeko aukera ematea erabaki du. Bandako bazkideak doan sartzeko aukera izanen dute, bestek bi euro pagatu beharko dituzte.



Altsasuko feriak. ARTXIBOA

## Ferietako argazki onenak ezagutzeko aukera

Erakusketa ostiralean zabaldu eta hilaren 11ra arte izanen da zabalik. Sari banaketa larunbatean

## ALTSASU

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak ferietan antolatutako argazki rallyra aurkeztutako lanak ezagutzeko aukera izanen da Iortia kultur gunean. Ostiralean zabalduko den erakusketan rallyn parte hartu zuten 39 argazkilarien irudiak izanen dira ikusgai. Feriaz aparte, kontrargia, tabernan, moda eta Altsasuko joan den urtean gaiei buruzko argazkiak egin behar izan zituzten rallyko parte-hartzaileek. Gai bakoitzeko argazki bana aurkeztu zuten lehiaketara. Horien erakusketak bilduma osatzen duen erakusketa bihurtik aurrera ikusgai izanen da; astegunetan, 18:30etik 21:00etara, eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Iortia kultur gunean dago ikusgai.

Larunbatean, berriz, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak sari banaketa egingen du Iortia kultur gunean bertan. 19:30ean hasiko da, lehiaketara aurkeztutako argazkien pantaila handiko proiektzioarekin. Zortzi sari banatuko dituzte: helduen mailan 200, 120 eta 90 euroko sariak eta haurren mailan hiru opari lote. Bestetik, saririk gabeko bazkidearendako eta gaiaren inguruko argazki onenarendako sari bana izanen da.

## Lazkoz Iruñeko Bertsoaroa zikloko aurreneko saioan

Bertsoaroa da Iruñeko Udalak eta Nafarroako Bertsozale Elkartek 1991tik urtero antolatzen duten zikloa, bertsolariak Iruñean sustatu eta kalitatezko emanaldiak eskaini asmo duena. Nafarroako bertsolariak eta bertsolari gazteei bultzada emateko xedea badu ere. Aurtengoa zor-tzi emanaldiz osatutako egitaraua prestatu dute, Bertsolari Txa-

pelketa Nagusiko finalaurreko bat barne duena. Bertsoaroa zikloa gaur hasi eta abenduaren 2an despedituko da.

Zikloa zabalteko bertso saioa antolatu dute. Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Ander Fuentes 'Itturri', Sustrai Colina, Onintza Enbeita eta Eneko Lazkoz bertsolariak ariko dira, Alaitz Re-kondo gai-jartzailearen esanetara. Ostegunean izanen da bertsoaia, 20:00etan, Iruñeko Gurutzeko plazako institutuko areto nagusian.



BAZTERRETIK

MAR GONZALEZ RUIZ DE LARAMENDI

## Ez nau izutzen negu hurbilak



Nonbait irakurri nuen Keniako errege batek gaua erbestera zuela, iluntzean etortzen zitzaizkion amesgaiztoak usatzearen. Ez dugu pasadizoaren amaiera ezagutzen, baina guztiok imagina dezakegu erregearen amorrua, gauak bere esana beteko ez zuela ulertu zuenean. Baina gaua heltzen ez bazen, ez zen egunik itzuliko.

Ipuina primitibotasun kutsu batekin heltzen zaigu, eta urruna dirudi, exotikoa ia, baina bitartean gure gizarteak heriotzaz hitz egitea debekatu digu. Sexuak gutxinaka bere tabu izaera galduz doan artean, heriotza gero eta hertsiago dago. Baten gaixotasuna edo bestearen azken egunak aipatzean, imintzo arraroak azalarazten dira, deseroso dauden keinuak. Duela asko heriotza estaltzeko esaldiak higatu zaizkigula, eta hitzen zuloetatik ezezagunaren oihua heltzen zaigu. Horrela, gizakiok gure barneko iluntasuna ukatu eta arrotz egin dugu. Horregatik bilakatu zaizkigu hilerriak ikararen

eremu, eta horregatik ibiltzen dira umeak inguruan zelatan, barnera, haien hilen magalera gerturatzearen beldur.

Bizitza zoriontsua izan behar da nahitaez, eta beste batzuek eraiki duten zoriontasunaren azalpenak zatitzen gaitu. Erbestera dugu heriotza, erbestera ditugu gauak... eta haien atzean argiak ihes egiten digu. Baina heriotza bazterten badugu ere, gure baitan dirau, gurea da. Edo agian gu gara heriotzean gaudenak, gaua egunean dagoen bezala. Eta berriz kanpoan badago, kanpotik badator, hiltzea lapurreta izango da, eraso. Uxatzeak bakarrik gure barneko zati baten etsai bihurtzen gaitu, eta pisutsua da bizitzaren bideetan zehar gure etsaia arrastaka eramatea.

Gure baitako heriotza gurea badugu, berriz, gaixoak gure ondora ekarriko ditugu; hiltzorian daudenek maitasuna aurkituko dute gure begietan; eta bihotzaren bilerak hilerrietan ospatuko dira.



Agustin Gonzalez Azilu Vianako Printzea saria jasotzerakoan hitza hartu zueneko. ARTXIBOA

# Gonzalez Aziluren Arrano Beltza Altsasun

Iruñeko Ganbera Abesbatzak Agustin Gonzalez Azilu konposatzaile altsasuarraren Arrano beltza interpretatuko du Iruñeko Ganbera Abesbatzak. Musika garaikideko emanaldia ostiralean, 19:30ean, izanen da, lortia kultur gunean.

### ALTSASU

Musika garaikidearen ordezkari nabarmenetako bat da musikari Agustin Gonzalez Azilu altsasuarra. Europako musika garaikideko funtsezko obretako bat da bere *Arrano beltza*. Obra hori Luis Morondok zuzendutako Iruñeko Ganbera Abesbatzak mustu zuen 1997ko ilbeltzaren 15ean Iruñeko Gaiarre antzokian, Gonzalez eta Artze han zeudela. 40. urteurrena dela eta, berreskuratu nahi izan du, Europako musika garaikideko funtsezko obretako bat delako.

Gonzalezek euskararen tonologiaren espekulazio ildoan kokatzen da 1975 eta 1976 urteen artean sortutako *Arrano Beltza*, bakarlarri-ahots laukote eta ganbera-abetesatza mistorako pieza. Joxean Artzeren, Hartzabalen *Laino guzien azpitik* euskarazko testuan oinarritutako lana. Olerkiak lau mailatan banatu ziren: bisualak, fonetikoak, lirikoak eta sozialak. Guztiakin Artzek Nafarroako historiaren kronika

egin zuen, independentzia galtzea markatu zuten data beltzak gogoan izanik; 1200 urtetik gaur egunera arte. Artzek XV. mendeko Zuberoako kanta baten zatia tartekatu zuen, Leringo konde beamondarraren traizioa aipatzen duena. Testu gogorra eta zuzena, adierazpide latzekoa. Zifrak bere sonorizazio fonetiko kontuan izanda ordenatuta daude. Haiek bata bestearen gainean jartzeak erlijio kutsuko soinua ematen dio, testuaren esanahia azpimarratuz horrela.

### Musikari berritzailea

Agustin Gonzalez Azilu musikagilea XX. mendeko musikari berritzaile garrantzitsuenetako zatitza jotzen dute, 51ko belaunaldiko

diko Halffeter, De Pablo edo Bernaola musikagile ezagunekin batera. Atonalitatea da haien ezaugarri nagusietako bat.

Soinu-errealitate berrien bilaketak markatu du Gonzalezen musika-ibilbidea. Bere obretan hari fin batek uztartzen ditu musika tonala eta atonala. Altsasuarrak musika garaikideko soinu objektiboekin eta elementu kulturalaren subjektibotasunarekin jolas egin du. Aipagarriak dira bere linguistika-ikerketak: Gonzalezek inork ez bezala aztertu du hizkuntza eta musika uztartzeko modua. Bere obretan eta inork ez bezala landu ditu ahotsak. Horregatik guztiatik altsasuarrak berebiziko eragina izan du konposizio fonetikoan. Gonzalezek esana: "soinuak mugitzean datza musika". Altsasuarraren sormen lanean bat egiten dute askatasunak eta zorrotzasunak. Horiek oinarri hartuta, estilo jakin baten ordezkari izan da, musika komertzialetik haratago.

## GONZALEZI VIANAKO PRINTZEA SARIA EMAN DIOTE ETA BITAN MUSIKA SARI NAZIONALA

# Etxepare sariak Arraroa albuma aurkeztu du

Ainara Azpiazuren (Axi) eta Paula Estévezaren albuma Pamiela argitaletxeak argitaratu du. Aurkezpena egitearekin batera, sariketako antolatzaileek heldu den urteko deialdiaren berri eman dute.



Ainara Azpiazuren eta Paula Estévezek astelehenean aurkeztu zuten albuma. UTZITAKOIA

SAKANA Sakanako Mankomunitatearen eta Nafarroako beste 20 erakundearen Euskara Zerbitzuek elkarlanean antolatu dute haurrendako euskarazko albumak sortzea helburu duen Etxepare saria. Aurtengo irabazleak Ainara Azpiazu (Axi) eta Paula Estévez izan dira, *Arraroa* albumarekin. Lana argitaratu da eta aurkezpena gaur egin dute.

Albuma etxebizitza bakar baten baitan ematen den istorioa da. Marrazkiek, etxebizitza horretako bizilagunak azaltzen dizkigute, leihoak abiapuntutzat hartuz eta hauen kanpoaldean eta barnealdean gertatzen direnak azalduz. Epaimahaikideek esan dutenez, “haur batek gaurko gizartearen aniztasunari erreparatzen dio bere etxeke leihotik. Neskatoak hamabi egerra bitxi aurkezten dizkigu eta modu simple bezain grafikoan egiten du auzokide bakoitzaren argazkia, bineta gisa, topikoei ihesi, eta benetako errealitatea agerian utziz”. Haien ustez, “egileek modu bikainean elkartu dituzte hitza eta irudia. Testuaren bidez egoerak aurkeztu ahal, irudien bidez egoera horiek

biziaz hartzen dute, umorea lagun eta detaileei arreta jarrita. Hizkuntza biek originaltasuna indarra eta askatasuna erakusten dute. Kolore biziek, berriz, areagotu baino ez dute egiten lana darion bizipoza”.

Gaineratu dutenez, “tonua album guztian mantentzea lortzen du, liburu orekatua lortuz”. Gainera, nabarmendu dutenez: “album ilustratu horrek estereotipoak alboratzeko proposamen umoretsua eskaintzen digu eta, aldi berean, irakurleoi go-goeta egiteko aukera helarazten”.

## Deialdi berria

Etxepare sariaren 2018ko deialdia egiteko baliatu dute aurten go albumaren aurkezpena. Sariketara hurrei zuzenduriko album ilustratuak aurkeztu ahal izanen dira, hau da, “testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak”. Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira. Bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean parte hartu daiteke. Egileek nahi beste lan aurkez ditzakete.

Formatua librea da, baina lana ez dira 20 cm x 21cm baino

txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte (bakarrik kontuan hartuko dira barneko orrialdeak). Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne). Azken lau deialdietako idazleek edo ilustratzaileek ezin izanen dute aurkeztu. Lehiaketan parte hartzen duten egileek albumaren maketa aurkeztu beharko dute, hau da, azken bertsioa inprimatuta, bukatutako albumean agertuko liratekeen testu zein ilustrazioekin, modu xumean bada ere. Horretaz aparte, maketa pdf formatuko fitxategia ere aurkeztu beharko da eta testu dokumentu batean jasoa albumaren testua.

Plika sistema erabiliz aurkeztuko dira lanak maiatzaren 18rako, Leitzako udaletxean, Euskara Zerbitzuan. Garagarriaren 29a baino lehen jakinaraziko da epaia. Sari bakarra ematen da, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan. Zergen atxikipena indarrean dagoen legediari jarraiki egiten da. Saritutako lana Pamielak argitaratuko du euskaraz, eta argitalpenean Etxepare sariaren aipamena egiten da.

## Gorrotxategirekin bere eleberri beltzaz aritzeko aukera

“33 ezkil” nobelaren inguruko literatura-hizketaldia antolatu dute abenduaren 19rako

### SAKANA

Miren Gorrotxategi idazlearena da *33 ezkil* (2016, Elkar) nobela. Liburua irakurtzeko eta gero sortutako inpresioak eta iritziak idazlerekin partekatzeko proposamena egin dute. Literatur solasaldi hori abenduaren 19an, asteartean, 09:30ean, izanen da, Altsasuko Iortia kultur gunean. Saioa Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, AEK-ko Itsasi euskaltegiak eta Sakanako Mintzakidek antolatu dute.

Gorrotxategiren aurreneko liburu da hizpidea ematen duena. Guztia Garizmendi baserriko Ferminnek, aitzurrean ari dela, lurperatutako burezur bat topatzen hasiko da. Nestor semeari hots eginen dio eta hark Berta andregai ohi arkeologoari; hilotza ateratzera doazenean baina, desagertua da eskeletoa.



Miren Gorrotxategi. UTZITAKOIA

Hortik aurrera, berriz, hildako gehiago, eta misterioa gero eta ilunago. Hildako zahar eta berriak, anaien arteko gorrotoak, belaunaldien arteko arrakalak, bikote barruko konpondu ezinak, droga, jokia... Osagai ugari elberri beltza.

## Sei liburutegik Kirmen Uribe gonbidatu dute

Arbizuko, Etxarri Aranazko, Urdiaingo, Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko liburutegiak estreinakoz elkarlanean ari dira. Eta horren emaitza Kirmen Uribe idazlearekin antolatutako literatur-solasaldia izanen da. Idazle ondarrutarraren obra egilearen ahotik zuzenean ezagutzeko aukera ezin hobea izanen da, beraz.

## Folk bidaia Maite Itoizen eta John Kellyren eskutik

Folk ametsetan zikloa despeditzeko Maite Itoiz sopranoak eta John Kelly abeslariak kontzertua eskainiko dute larunbatean, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean. Euren ahotsak harpa zeltiarrarekin, errenazimenduko lautearekin, txirulekin eta perkusioarekin lagunduko dute. Eta, horrela, Erdi Aroan hasi eta gaur egunera arteko erre-

Bitartean heldu eskutik, *Portukoplak*, *Bilbao-New York-Bilbao*, *Mussche*, *Elkarrekin esnatzeko ordua* eta beste hainbat liburu argitaratu ditu Uribek. Harekin hitzordua hilaren 17rako jarri dute, ostirala, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. Saioaren aurretik Uriberen obra ezagutzera emateko irakurketa gida sortu dute liburutegiek. Idazlearekin solasaldi hori Nafarroako Gobernuaren Liburutegi Zerbitzuaren laguntzari esker posible izan da.

pertorioa eskainiko dute, herri musika, euren sorkuntzak eta eta euskal kantutegia tartekatuz. Eztarriak berotu eta koroak egiteko aukera aparta izanen da biharkoa.

Soprano nafarrak eta haren senarrak ibilbide zabala egin dute, elkarrekin nahiz bakarka. Askotariko estiloak landu dituzte eta Alemanian lehen postua lortu dute biek osatzen duten Elfenthal izeneko taldearekin, rock sinfonikoa lantzen dute formazio horrekin.

# Ni neu Galtzeta, Uribe eta Zigandaren album berria

Ilustratzaile eta haur hezkuntzako irakasle baten eskutik dator Sakanako azken nobedadea, "Ni neu Galtzeta" album ilustratua. Galtzetin bat da protagonista, bere parea galdu ondoren bizitzan aurrera egin beharko duena

**Rebeka Mendoza** LAKUNTZA

Iker Uribe, muralista eta ilustratzaile lakuntzarrak orain dela urt batzuk bere lehenbiziko ipuina argitaratu zuen; *Txirringa magikoa*. Lastailean, duela bi aste, bere bigarren albuma argitaratu zuen Joana Ziganda oskozarrarekin. Ipuina Zigandak idatzi eta Uribe ilustratu du. Autoedizio bat da, argitalpenak azkeneko momentuan bere barne-gatazka batzuenatik atzera egin zuelako.

Esan beharra dugu, proiektu hau egunerokotasunean jaio zela, bi lagun arteko elkarrizketa batean. Uribe bigarren liburu bat argitaratzeko nahia zuen eta Zigandak egunerokotasunaren barne ematen den egoera bati buruz istorio bat asmatu zuen. Istorio horri buelta batzuk eman eta gero *Ni neu Galtzeta* sortu zen.

## Albuma

Ipuinaren protagonista Galtzeta dugu. Etxe guztietan galtzen den galtzeta hori izan daitekeena. Galtzetak bere kidea galtzen du, baina bizitzan aurrera egin behar du. Bidean oztupoak aurkituko ditu eta lagunak egingo ditu ere.

Galtzeta haurrendako hurbila den pertsona bat da, izan ere, jantzi bat baita, egunero erabil-



Iker Uribe eta Joana Ziganda sortu duten albumarekin. REBEKA MENDOZA

tzen dugun objektu bat. Pertsonai horrekin, idazleak indibidualtasuna indartzen du. Ipuin ohikoetan topatzen ez diren gaiak lantzen dira *Ni neu Galtzetan*, abentura indibidual bat da eta norbanakoen indarra adierazten da. Gainera, ez protagonistak ez beste pertsonaiak sexu markatu bat dute, hau da, edonork bere burua nahi duen pertsonaiaarekin identifikatu dezake.

## Aurrera begira

Idazleak eta ilustratzaileak pixkanaka joan nahi dute. Orain,

ipuinaren hedapen prozesua da, ipuinen banatzaileak haiek dira eta. Dena den, Uribe eta Zigandaren inpresioa gauza oso azkar doala da, baina oso pozik daude. Gainera, jendearen harrera oso ona izaten ari da.

Esan beharra dago, Sakanako liburu-dendetan eskuragarri dugula ipuina, Olatzagutiko estankoa, Altsasuko Arkatz liburu-dendan, Etxarriko Kaxetan, Arbizun Ane Zalduaren argazki-dendan, Lakuntzan Gure Etxea tabernan eta Irurtzungo Martxuetan, besteak beste.

# Kanpo santuan topo egindako bi mundu desberdinen gerturatzea

Egoera horixe proposatzen digun antzezlan gaur, 22:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean ikusgai

ETXARRI ARANATZ

Heriotzak denak berdintzen gaituela diote. Horrek hurbilekoak kanpo santuan bisita egitera eramaten gaitu. Eta han topaketa bitxiak suertatzen dira, Txalo produkzioak-ek proposa-

tutakoaren modukoak. Alde bati, Aiora izeneko neska pinpirina, polita, gozoa eta alarguna. Bestetik, Pablo baserritarra, zekena, egoskorra eta ezkongabea. Bi mundu desberdin, baina bata bestearen ondoan topo egin

dutenak hilerrian, gertukoak aldameneko hilobietan baitaude.

Maila sozial eta kultural desberdinak aurrez aurre. Irribarre leun bat, ordea, nahikoa izango da bi protagonisten arteko sua pizteko. Ezinezkoa litzatekeena posible eginen duena. Katarina Mazetti idazle suediarren lan batean oinarritutako komedia jostagarria *Ondoko hilobiko tipoa*, Aitziber Garmendia eta Iker Galatza aktoreek antzeztuko dute, Begoña Bilbao Lejarzegiren zuzendaritzapean.



NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Alegre Bertsozale bigarren

Bertsokabia-Eugenio Arraiza sariketako lehen irabazleak Amaia Elizagoien eta Xabat Illarregi dira. Joan den ostegunean Iruñean jokaturako finalean nagusitu zen bikotea. Bigarrena Ekain Alegre altsasuarra eta Joanes Illarregi leitzarria izan ziren. Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazu (Irati Majueloren ordeko) izan zen finalean parte hartu zuen hirugarren bikotea.



Hodei Magoak bere azken ikuskizunean. WWW.MAGOHODEIMAGOA.COM

## Hodei magoa Gazte Arte Topaketarako aukeratua

Nafarroako Gobernuaren deialdiko arte-eszenen sailean aukeratu dute eta gaur du emanaldia Iruñean

ALTSASU

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren Arte Gaztearen Topaketak programa antolatzen du urtero. Hainbat sail ditu eta aurkeztutako proposamenak jendaurrean emateko aukera izaten dute gazte sortzaileek. Aurtengo edizioan, eszena-arten sailean lau proiektu aukeratu dituzte eta horien artean dago Mago Hodei Magoa konpainiaren *Ilusioaren indarra* ikuskizuna. Hodeik, publikoarendako zabalik dagoen epaileen aurreko emanaldia, gaur bertan emanen du,

20:00etan, Iruñeko Nafarroako Antzerki Eskolan

Hodei Domingo Mendiluzek berak azaldu digunez, haur eta helduei familia-magia ikuskizuna da euren, "eszenaratze originala eta berritzailea". Guztia argudioarekin, zinema egiturekin. Hodeik eszenan laguntzailearekin ariko da, egoera komikoak, koreografiak eta publikoarekin joko desberdinak sortzen. Guztia musika ezagunaz jantzita. Ez da ohiko mago txiste-kontalaria, Hodeik sortzen duen magia izanen da barrea eragiten duena.

# “Burokrazia asko dago eta animaliek paper asko izan behar dituzte”

Gorka Mendiñeta abeltzain gazteak etxeko ogibidearekin jarraitzea erabaki zuen orain dela hamar urte. Migel Gonzalez aitonaren erreleboa hartu eta osabarekin batera ari da lanean

**Rebeka Mendoza**

## 1 Zer ikasi zenuen?

Iruñean batxilerra ikasi nuen, gerora Arkautin nekazaritzari eta abeltzaintzari buruzko goi mailako ziklo bat egin nuen.

## 2 Betidanik zaldiekin lan egin duzu?

Bai. Ez dut beste lanik ezagutzen.

## 3 Noiz izan zen zure lehenbiziko harremana zaldiekin?

Txikitari, afizio asko nuen eta beti laguntzen saiatzen nintzen.

## 4 Noiz hartu zenuen zaldiekin lan egiteko erabakia? Zergatik?

Ikasketekin bukatu eta gero erabaki nuen. Betidanik ezagutzen nuen lan bat zen, gainera etxean eginbidea jadanik erakita zegoenez errazagoa izan zen.

## 5 Zertan datza zure lana?

Behorrek eta moxalak izateaz aparte, haragizko behiak eta txekorrak ditugu. Txekorrak eta moxalak gizendu eta gero saldu



Gorka Mendiñetaren zaldiak. REBEKA MENDOZA

egiten ditugu, ziklo osoa deitzen zaio hori.

## 6 Zer motatako zaldiak dituzue?

Auritz arrazakoa eta behiak Pirenaika arrazakoak dira gehienak.

## 7 Nola kudeatzen dituzue?

Behorrek beti kanpoan daude. Apirila-maiatza aldera erditzen dute eta gerora Urbasara igotzen ditugu. Irailean herrira jaisten ditugu eta azaroan Tafalla aldera eta Agoitzera



Gorka Mendiñeta. REBEKA MENDOZA

eramaten ditugu, bertan negua pasatzen dute.

## 8 Denbora asko eskatzen dute?

Beti egon behar da baten bat zain. Zaldiak haragitarako hazten ditugu.

## 9 Beraz, zuen haragia Sakanako harategietan topa dezakegu? Non bestela?

Ez. Iruñera eramaten dugu gehien bat eta bertan haiek banatzen dute, azken boladan ia gehiena Italiara eramaten ari da.

## 10 Zaldiekin azoketara joan zarete?

Bai, batzuetan. Gehien bat Altsasura, baino Lekunberrira ere joan gara.

## 11 Ogibidean etorkizun ona ikusten duzu?

Egia esan, etorkizun oso zaila ikusten dut. Burokrazia asko dago eta animaliek paper asko izan behar dituzte. Horrek lanbidea zailtzen du. Zeretik hasiteko ogibide honekin zaila izan behar da.



Ez zaitetz atzeratu...

# Antolatu zure urte hasiera!

**gk**  
KOMUNIKAZIOA

Foru plaza 23-1. 948 564 275 / 948 562 107. [gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)